

Hizkuntza

Eskubideen

egoera

2017



HIZKUNTZ ESKUBIDEEN
BEHATOKIA

Hizkuntz Eskubideen Behatokia

Hizkuntz Eskubideen Behatokia euskal hiztun oren hizkuntza-eskubideez arduratzen den erakunde independente eta nazionala da eta eskubide horiek Euskal Herri osoan, arlo publikoan zein pribatuan, babestera zuzentzen du bere jarduera.

Euskal Herrian euskaraz mintzatzeko, administrazioari zuzendu eta administratziotik zerbitzuak jasotzeko (osasuna, hezkuntza, justizia, informazioa edo beste edozein zerbitzu), bai eta orokorrean, jendarteak eskaintzen dituen aukerak euskaraz baliatzeko euskal hiztunek dituzten eskubideak babestea da Behatokiaren xedea. Ondorengo lerro hauetan islatuko dugun azterketa 2016an herritarrek Behatokira helarazitako gertaeretan oinarritzen da. **Euskararen Telefonoaren** edo **Akuilari** app-aren bidez, administrazio publikoen eremuan zein sektore sozioekonomikoan, euskaraz jarduteko eskubidea errespetatu ez zaienean, Behatokira jo dute babes bila edota salaketa egitera bizi izan duten hizkuntza-eskubideen urraketaren aurrean eragiteko asmoz. Horrela bada, azterlan honen iturria herritarren beraien bizipenak dira, euskal hiztunek euren egunerokoan euskaraz jarduten saiatu direnean bizi izan dituzten egoerak.

Horrela bada, Behatokian jaso ditugun gertaera horiek guztiak errealitatearen zati bat, lagin bat besterik ez dira, baina euskal hiztunen benetako egoerara eta egunerokoan aurkitzen dituzten zailtasunetara gerturatzen gaituzte.

Oharra: liburu honetan agertzen diren datuak, informazioa... baliatu nahi izanez gero, iturria aipatzea eskertuko da.

Izenburua: Hizkuntza Eskubideen Egoera 2017

Mota: urteko txostena

Egilea: Hizkuntz Eskubideen Behatokia

Argitaratze data: 2018ko ekainaren 6a

Ale kopurua: argitalpen digitala (www.behatokia.eus atarian eskuragarri)

Hitzaurrea	4
Garaia iritsi da euskaraz bizitzeko nahiari egoki erantzungo dion hizkuntza-politika birpentsatzeko	
Sarrera	5
70 urte beranduago, bereizkeriatik eskubidera	
00 Herri gogoa, Behatokiaren jardunaren oinarri	6
01 Osasungintza	20
02 Herritzaingoa eta Segurtasuna	28
03 Justizia	33
04 Hezkuntza	37
05 Administrazio jarduera orokorrak	44
06 Kultura, aisia eta kirola	55
07 Lan mundua	63
08 Kontsumo zerbitzuak eta interes orrokorreko zerbitzuak	71
09 Ondorioak	89

Garaia iritsi da euskaraz bizitzeko nahiari egoki erantzungo dion hizkuntza-politika birpentsatzeko

Zortzigarrenez dagokit Behatokiak hizkuntza-eskubideen egoera zertan den azaltzeko argitaratzen duen urteko txostenari hitzaurrea egitea. Egia esan, urtero idazten hasten naizenean antzeko gauza errepikatuko ez dudan kezka izaten dut. Finean, txostena irakurrita *dejá vu* sentsazioa izaten dut urterik urte.

Halere, jarraian ohartzen naiz txostenaren atzean herritarrak daudela. Alegia, euskaraz bizitzeko nahiari determinazioz eutsi dioten herritarrak daude, eta tamalez, nahi hori zapuztu egin zaie. Eta, nola ez, horrek hainbat galdera sortzen dizkit: zergatik ez dira herritar horiek errespetatzen? Ez al dute herritar horiek tratu ona, tratu egokia merezi? Noiz arte egon behar dugu egoera bera errepikatzen?

Eta galdera horiekin erantzunak ere badatozkit, bat nagusiki: bada garaia hizkuntza-eskubideen bermeari epe-muga jartzeko. Alegia, hizkuntza-eskubideen bermea ezin da *ad eternum* luzatzen den prozesua izan. Epeak zehazteko garaia da, epe laburrak, ebaluagarriak, jarraian neurri zuzentzaileak hartu ahal izateko.

Iazko hitzaurrean 2016ko Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloari egiten nion erreferentzia, eta aurten ere tokia egingo diot. Izan ere, hizkuntza-eskubideak bermatzeko borondatea egonez gero, berriki aurkeztu dugun Protokoloaren Euskal Herriko Garapena tresna ezin baliagarriagoa da

horretarako. Euskal Herriko laurogei eragile baino gehiagorekin Protokoloak hizkuntza-eskubideak bermatzeko proposatzen zituen neurriak euskararen betaurrekoekin irakurri ditugu, eta, beraz, neurri horiek egikaritzeko eman beharreko urratsak bildu ditugu dokumentu batean.

Jauzia egiteko garaia iritsi da. Zalantzarik ez dugu herri-gogo indartsua dugula, eta herri-gogo indartsu honek euskaraz bizitzeko konpromisoa erakusten duela egunez egun. Hartara, garaia iritsi da bizi-nahi horri egoki erantzuteko hizkuntza-politika birpentsatzeko. Gainera, ariketa hori konplizitatez eta lankidetzan egin behar dugu euskalgintzakook eta instituzioek. Horrexegatik, hurrengo urteko txostenaren hitzaurrea desberdina izan dadin gaurdanik ekin behar diogu lanari.

Honako txosten honek egoera zein den egiaztatzeko datuak eskaintzen dizkigu. Egoera hori iraultzeko bidea zein den jorratu dugu hamarnaka eragileok Europan inoizko babes sozial handiena izan duen dokumentu baten gainean. Hartara, ekitea besterik ez da falta. Ekin diezaiogun, bada!

Paul Bilbao Sarria
Hizkuntz Eskubideen Behatokiko lehendakaria

70 urte beranduago, bereizkeriatik eskubidera



1948ko abenduaren 10ean, Nazio Batuen erakundeak 217-A Ebazpenaren bidez Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala onartu zuen Parisen. Bertan oinarritzat hartzen diren giza eskubideak bildu zituen 30 artikulutan.

Esan ohi da giza eskubidea duintasunaren ondorioz gizakiari dagozkion berezko ezaugarrien multzoa dela. Horrela, gizakien duintasuna bera gurea izanik, ezin dira urratu. Are gehiago, horiek gabe pertsonak ezin dira bizi, ez eta bizitza osoa emana ere. Horrexegatik giza eskubide orok agertzen dituzten oinarritzko ezaugarri batzuk, besteak beste, gizakiari sortzetik datxizkio; gizaki guztiei dagozkie, unibertsalak eta besterezinak dira, preskribaezinak dira, etab.

Hori guztia nolabait jasota geratu zen duela 70 urte aurkeztutako Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren lehen bi artikuluetan. Lehenean, gizon-emakume guztiak aske jaio eta duintasun eta eskubide berberen jabe garela jasotzen da. Bigarrenean Deklarazioak adierazitako eskubide eta askatasunak gizaki orori dagozkiola, eta ez dela inor bereiziko, besteak beste, hizkuntzarengatik.

Hartara, hizkuntza-eskubidea substantiboa eta subjektiboa ez bazen ere, Deklarazioak aitortu egiten zuen beste edozein eskubide gozatzerik badugula eta ezin zaigula hizkuntzarengatik bereizkeriarik eragin eskubide hori baliatzerakoan.

Behatokian zalantzarik ez dugu aurrerapauso garrantzitsua izan zela nazioartean lehen aldiz giza eskubideak bilduko zituen itun bat onartu izana. Gainera, gogoratu behar dugu deklarazio horren bidez etorri zirela derri-gorrez bete beharreko lehen belaunaldiko eskubideak edota bigarren belaunaldikoak jasoko zituzten beste bi itun garrantzitsu, Eskubide Zibil eta

Politikoen Nazioarteko Ituna, batetik, eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna, bestetik. Horrela, hiru dokumentu horiekin Giza Eskubideen Nazioarteko Ituna osatu zela esan dezakegu, eta horien ondorioz eratu zen mundu mailan eta Europa mailan indarrean dagoen eskubideen babeserako amaraun juridiko guztia.

Izan ere, duela 70 urte beste hainbat diskriminazio-motarekin batera jaso zuten hizkuntzarengatik bereizkeriak garapen integrala izan du eta oinarritzko eskubideen ikuspegi linguistikoaz harago, egun, hizkuntza-eskubideak eskubide substantibo eta subjektibotzat hartzen dira.

Egia da, bai, atzera begiratur gero, gaur egun hizkuntza-eskubideak aldarrikatzeko tresna eragingarriagoak ditugula, baina gogora dezagun, beti, horien guztien azpian Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren bigarren artikulua dagoela, hain zuzen ere, hizkuntzarengatik bereizkeria. Eta, gizakien arteko kohesioa eta bakea bermatzeko lehen baldintza da herritar guztiak berdinak kontsideratzea, eskubide berberen jabe izatea.

Hizkuntza-eskubidea substantiboa eta subjektiboa ez bazen ere, Deklarazioak aitortu egiten zuen beste edozein eskubide gozatzerik badugula eta ezin zaigula hizkuntzarengatik bereizkeriarik eragin.

00 Herri gogoia,
Behatokiaren
jardunaren oinarri

Herritarren ahalduntzea, aldaketaren giltzarri

Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala onartu zenetik 70 urte bete direlarik, bere bigarren artikuluan hizkuntzarengatik bereizkeriarik ez dela egingo esaten den arren, oraindik ere euskaraz bizitzeko hautua egiten duten Euskal Herri osoko herritarrek zailtasun aunitz aurkitzen dituzte egunero, bizitzako alor guztietan (osasun zerbitzuetan, justiziaren eremuan, administrazio guztien jardueran, aisialdian, hezkuntzan, komunikabideetan, sektore sozioekonomikoan, etab.), eremu publiko zein pribatuan. Horien aitzinean, geroz eta herritar gehiago errebelatu egiten dira eta ahalegin guztiak egiten dituzte bazterkeria egoera horiei aurre egiteko, duintasun eta berdintasunez bizitzeko eskubidea aldarrikatuz.

Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatu beharko lituzketen erakundeek maiz utzikieriaz jokatzeko duten bitartean, herritarrek irmo eusten diote euskaraz bizitzeko nahari eta euren eskubideak tinkotasunez exijitzen dituzte. Diskriminazioari aurre egin eta bigarren mailako herritar izatea onartzen ez duten herritar horien ahalduntzeari esker, hizkuntza-eskubideen errespetua lortzen da euskal hiztun guztiontzat.

Eta horixe da, hain zuzen ere, hizkuntza-eskubideen urraketak iraultzeko modurik eraginkorrena, urraketari konponbidea ematen diena. Aldaketa txikienetatik hasi eta handietaraino. Urratsez urrats eta denon laguntzaz ematen baitira aldaketak.

Horrela bada, euskaraz bizitzeko aukera eta eskubidea egunero mugatzen diren testuinguru honetan, herritarren ahaleginari eta jarrera eraginkorrari esker, aldaketak eta aurrerapausoak ematen dira eta horren lekuko dira 2017an hainbat herritarrek Behatokira helarazitako bizipenak eta testigantzak:

Duela zenbait denbora herritar batek kexa jarri zuen Bizkaiko Hipika Federazioaren web orria (www.fbizkainahipika.eus) gaztelaniaz egoteaz gain, telefonozko arreta ere ez zutelako euskaraz egiten. Bada, 2017ko urtarrilean beste herritar batek Bizkaiko Hipika Federazioa zoriontzeko eskatu zuen webgunea jada ele bietan zegoelako eta egun euren komunikazioetan euskarari lehentasuna ematen ziotelako. **1**

1 LEHEN



ALDATUA




Hainbatetan herritarren hizkuntza-eskubideak errespetatzeko asmoa dagoela ematen badu ere, urraketak ematen dira hizkuntzaren erabilera traketsa egiten delako. Horrek herritarren sumindura eragiten du, baina euskaraz bizitzeko duten jarrera irmoari esker, aldatetak nahiko berehalakoak izaten dira:

Gernika aldeko Osasun zentroko pasabidean zegoen ebakuaziorako jarraibideen oharren euskarazko testuak akatsak zituela ohartarazi zigan herritar batek, eta osasun etxeko arduradunekin harremanetan jarri ondoren, kartelak ordeztu zituzten. **2**

Renferen Aldrietako Olabeagako geltokiko sarbideko errotuluak akats ortografikoa zuela ikusi zuen herritarrak ("sarbidea" beharrean "serbidea" ageri zela). Erreklamazioaren berri jakin bezain laster, egun gutxiren bueltan Renfeko Euskadiko Aldirikoen Nukleoaren Gerentziak testua zuzendu zuen. **2**

Eusko Jaurlaritzaren Gipuzkoako Ordezkaritzaren sarreran soinean ikusgai eraman behar zuen txartela eman zioten herritarri. Euskarazko testua ulergaitza zela eta, haserre zuzendu zen herritarra Behatokira. Kexa bideratu ondoren, Eusko Jaurlaritzako Baliabide Orokorreko Lurralde Bulegotik txartelak baztertu eta berriak prestatuko zituztela agindu zuten. Honatx: **3**

2 LEHEN



ALDATUA




2 LEHEN




ALDATUA



3 LEHEN



ALDATUA



Iruñeko Onkologiako Eguneko Ospitalean tratamendua hartzera sartzeko lekuan dagoen oharraren euskarazko bertsioa ez zela zuzena ohartu zen Akuilari aplikazioaren erabiltzailea. Gurean salaketa jarri ondoren, zuzendu zutela eta esker oneko idatzi zion Behatokiari herritarrak: “Martxoan kexa bat egin nuen eta gaur Osasunbideak zuzendu duela ikusi dut. Ze poza eman didan!” **5**

Iruñeko Ibilgailuen Azterketa Teknikorako zentroan erabiltzaileei zuzendutako oharraren euskarazko bertsioan akatsa zegoela jakinarazi zuten herritar batek eta handik denbora batera konponduta zegoen jada. **6**

Bilboko aldirietako trenetan erabiltzaileei zuzendutako oharraren euskarazko testuak ez zeudenez behar bezala euskaratuta (“Trenatik IGOTZEA edota JEISTEA deberaturik dago atek ixterakoan”), Renferi kexa helarazi zitzaion eta herritarraren ahaleginari esker, zuzentzea lortu zen. **7**

5 LEHEN



ALDATUA



6 LEHEN



ALDATUA



7 LEHEN



ALDATUA



Kasu batzuetan, hizkuntzaren erabilera okerra egiteaz gain, euskalduneko axolagabe ageri dira zenbait erakunde, eta errespetu falta hori nabarmen gelditzenda, itzultzaile automatikoak erabiltzen direnean. Horren erakusgarri da Construcciones Moyua enpresak haren instalazioetan jarritako oharra: “Bilatu duzun hitza ez da hiztegian agertzen”. Erabiltzailearen ahaleginari esker, kartela ordeztu zuten. **8**

8 LEHEN




ALDATUA



Hizkuntza-paisaia osatzen duten kartelak, oharrak, jakinarazpenak, etab. hizkuntza baten normalizazioan oso garrantzitsuak diren arren -uneoro begietatik sartzen zaigunak hizkuntzaren ezagutzan eta erabileran eragin handia duelako-, hainbatetan ez dute erakunde publikoen behar bezalako arreta izaten. Osakidetzan bereziki nabarmena da. Herritarrek eginiko ahaleginari esker, dena den, ohar horiek behar bezala agertzea lortzen da: Donostia Ospitalean hainbat ohar aurkitu dituzte herritarrek gaztelania hutsean idatzita. Alde kirurgikoan ele bietan ez zeuden ohar batzuen berri eman zigun herritarrak eta ospitaleko arduradunekin harremanetan jarri ondoren horrelaxe erantzun zioten Behatokiari: “Badirudi oharra egin zuen profesionalak bere kabuz sortu eta jarri zuela. Zuen kexa jaso bezain laster, kartelak kendu eta berriak jarri ditugu”. **9**

9 LEHEN




ALDATUA



Mantentze-zerbitzuko kanpoko atean, kaletik erabat bistan zegoen kartela ere ez zegoen euskaraz erabiltzaileak esandakoaren arabera. Donostialdeako ESiko Zuzendari Gerentearekin harremanetan jarri eta kartela ele bietan jarriko zutela agindu zuen. **10**

10 LEHEN



ALDATUA



Ospitale bereko biltegian, sarrerako atean, gaztelania hutsezko oharra aurkitu zuen herritarrak. Donostialdeako ESiko Zuzendari Gerenteak horrelaxe erantzun zuen: “Kartela ohiko prozedura jarraitu ez duen profesionalen batek jarriko zuen”. Aldaketa egin zuten **11**

11 LEHEN



ALDATUA




Donostiako Ospitaleko Mantentze Departamentuan langileei zuzenduriko gaztelania hutsezko oharra zeudela jakinarazi zigun beste erabiltzaile batek. Aldaketa handik gutxira etorri zen. **12**

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak bidalitako fakturaren gutun-azal berriaren kanpoko aldeko testu guztia gaztelaniaz zegoela eta herritar baten kexa jaso zen. Bada, Ur Partzuergoarekin harremanetan jarri ondoren, inprentako hurrengo tiradan erabiliko zen gutun-azal txantilo berria prest zutela erantzun zioten Behatokiari. **13**


Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak berak urteetan izan du Mendexan irudian ikusten den armairutxo, eta bertan dagoen oharra gaztelania hutsean. Erabiltzaile batek jarritako kexari esker, ele bietan egongo da hemendik aitzina. **14**

Txagorritxu ospitaleko geletako kartelak gaztelania hutsean zeudenez, kexa helarazi zuen herritarrak eta Osakidetzako Araba ESko Pertsonaleko Zuzendariak jakinarazi zuen aldatu zituztela. **15**

12 LEHEN



ALDATUA



13 ALDATUA




14 LEHEN




ALDATUA



15 LEHEN



ALDATUA



Txagorritxu inguruan eginiko obretako seinaleetan testuak gaztelania hutsean zeudelako Behatokira zuzendu zen herritarra horiek aldatu zituzten. Seinale bat aldatu zuten, baina bigarrena oraindik zuzendu gabe zegoela eta herritarrak berriro jo zuten guregana; hau ere ele bietan jartzea lortu zuten. **16**

Sakanako herri txikietan furgonetarekin kalez kale ogia saltzen duen Amaya okindegiko ogi-zorroko logoa eta ogia kontserbatzeko gomendioak gaztelaniaz bakarrik zeudela komentatu zigun herritar batek. Amaya okindegiko gerentziari horren berri eman, eta euren logoa aldatzen ari zirela eta ordutik aurrera bilgarri guztiak euskaraz egongo zirela esan zuten. Logo berriaren irudia igorri zuten. **17**

Galdakaoko Ospitalera mamografia egitera joan zen herritarra ez zuten euskaraz artatu, berak horrela eskatu bazuen ere, eta, gainera, aldagelan hainbat ohar gaztelania hutsean zeuden. Kexa bideratu eta handik denbora gutxira kartel horiek aldatu zituzten. **18**

“Barakaldoko IKEA supermerkatuan eskaintzen kartel asko gaztelaniaz daude soilik eta goiburuan euskara ez da ia ikusten” salatu zuten herritarrak eta IKEAtik kartelak aldatzeko behar ziren neurriak hartuko zituztela agindu zuten. **19**

16 LEHEN



ALDATUA



17 LEHEN



ALDATUA




18 LEHEN



ALDATUA



19 ALDATUA



Bilboko Termibus geltokiko sarbideetan kartela gaztelania hutsean zegoela ohartu eta Behatokira jo zuen herritarrak. Bilboko Udalari jakinarazi eta indarrean duen arautegiarekin bat etorritz, kartela ele bietan jarri zuen. **20**

Bilboko Café Iruñarekin kexu agertu zen herritar bat euskaraz sekula ez artatzeaz gain, kanpoaldean menua ez zegoelako euskaraz. Café Iruñari kexa jakinarazi eta denbora batera establezimenduaren kanpoaldean jarritako euskarazko menuaren argazkia igorri zioten Behatokiari. Langileen kontratazio berrietan ere euskaldunak hartzen saiatuko zirela esan zuten. **21**

Bilboko Iberdrola dorrearen atzealdean, suhiltzaileek erabiltzeko gunean, oharrak gaztelania hutsean jarri zituztela ohartarazi zigun herritarraren ahaleginari esker, ele bietako plakak jarri zituzten handik gutxira. **22**

Azken urteotan hain ezinbestekoak bilakatu zaizkigun molde guztietako teknologia gailuen bidez (sare sozialak, makinak, etab.) zabaltzen diren mezuetan ere hizkuntza-eskubideen urraketak ematen dira, baina horien aurrean herritarrak ez du etsitzen haren eskubideak lortu arte.

Horren erakusgarri da euskal internautek eginiko ahaleginari esker eskuratutako lorpena. Izan ere, Facebook sare sozialak ez zuen labor.eus euskal plataformak eskuragai jartzen zituen esteka laburtuak erabiltzen uzten. Horren berri Behatokian salatzeaz gain, euskal erabiltzaileek kanpaina bati ekin zioten eta horri esker, ekainaren 15ean, Facebookek labor.eus orrialdearen estekak haren sarean partekatzea ahalbidetu zuen UZEIko txio honek iragarri zuen moduan. **23**

20 LEHEN



ALDATUA



21 ALDATUA



22 ALDATUA



23 ALDATUA



Bilboko Udalaren @BilbaoKultura Twitter kontuan txio ia gehienak, “euskarazko ekimenenak barne”, gaztelaniaz ematen zirela salatu zuen erabiltzaile batek eta, hari esker, Bilboko Udaleko Kultur Saitetik konponbidea emango ziotela esan zioten Behatokiari; sare sozial guztietan arau komunak ezarriko zituztela eta Twitterreko mezuak ele bietan idatziko zirela apirilaren 4tik aurrera. **24**

Irekia, Eusko Jaurlaritzako parte-hartze web orrian, euskarazko bertsioan, argibideak emateko zegoen bideoa gaztelania hutsean zegoen. Akuilari aplikazioaren erabiltzaile baten kexa bideratu ondoren, arazoari konponbidea eman eta bideoa euskaraz ikusgai jarri zuten. **25**

Kotxearen azterketa tekniko egiteko hitzordua webgunearen euskarazko bertsiotik egin bazuen ere, jakinarazpena gaztelania hutsean jaso zuen herritarrak. Salaketaren berri eman genion enpresako arduradunari eta arazo informatiko baten ondorioz zela egiaztatu ondoren, zuzenketa egin zuen. **26**

Basque Center on Cognition, Brain and Language (BCBL) delakoak Twitterretik deialdia gaztelania hutsean sareratu zuela eta kexu zen herritarra. Haiengana zuzendu eta berehala konpondu zuten akatsa Twitterreko oharra euskaraz ere argitaratu zuten. **27**

24 ALDATUA



25 LEHEN



ALDATUA



26 ALDATUA



27 LEHEN



ALDATUA



Urbil Merkataritza Guneko Facebook eta Twitter profiletan sartutako herritarrak atsekabea sentitu zuen informazio guztia gaztelania hutsean aurkitu zuelako. Hark esandakoa Urbileko arduradunei jakinarazi, eta profil horien kudeaketa Valentziatik Euskal Herrira aldatuko zutela eta 2018ko urtariletik aurrera komunikazio guztia ele bietan izango zela agindu zuten. **28**

Gasteizko autobus geltokiaren barruan Euskotrenek Bat txartela kargatzeko makinaren goiko aldean “Máquina en servicio” mezua agertzen zela eta, herritarrak behatokia jo zuen. Euskotrenekin harremanetan jarri ondoren, makinaren programazioan zegoen akatsa konpondu eta mezua euskaraz ere ikusgai jarri zuten. **29**

Herritar batek jakinarazitakoaren arabera, Gasteizko Juan de Ayala aparkalekuko makinetan euskaraz ordaintzeko aukera ez zen oso garbi azaltzen. Izan ere, hizkuntzen atalean ez zen ikurrina agertzen. Kexa honi esker, aparkalekuko arduradunek makina hornitzaileei arazoaren berri eman eta egoerari konponbidea eman zioten. **30**

Erakunde publikoek, herritarren hizkuntza-eskubideen bermean eredu izan beharko lukete, baina maiz eskubide horiek urratzen dituzte herritarrei eman beharreko dokumentuak, agiriak, txostenak, etab. euskaraz eskuragai ez dituztenean:

28 ALDATUA



29 LEHEN



ALDATUA



30 LEHEN



ALDATUA



Barañaingo Udalera izatezko bikote egitera joan eta, ahozko harremana euskaraz izan arren, ondorengo dokumentua gaztelania hutsean eman zioten Behatokiarekin harremanetan jarritako bikoteari; "euskarazkoa eskatu eta ez zegoela esan ziguten". Barañaingo Udalari gertaeraren berri eman eta gero, agiria ele bietan jarri zuten. **31**

Hondarrribiko Udalaren batzorde batetik bidalitako dokumentua gaztelania hutsean zegoela eta, amorratuta jo zuen herritarrak Behatokira. Normalean horrelakorik ez dela gertatzen erantzun zuen jarduneko alkateak, "denborarik ez delako izan edota koordinazioan akatsen bat egongo zen akaso". Txostena itzuli egin zuten azkenean. **32**

Barañain I osasun etxean Kalitza joateko jarraitu beharreko aholkuen gida gaztelania hutsean eman zion medikuak herritarrari. Informazioa euskaraz jaso nahi zuela esan zion herritarrak, baina ordenagailuan eskura zituen dokumentuetan arakatu eta ez zuen euskarazko alerik topatu. Salaketaren berri Osasunbideari jakinarazi ondoren, aipatutako agiriari gain, itzuli gabeko beste bi aurkitu zituzten. Herritarraren kexari esker, hirurak euskaratu zituzten. **33**

31 ALDATUA

SOLICITUD DE INSCRIPCIÓN EN EL REGISTRO DE PAREJAS ESTABLES	BIKOTE EGOKORREN ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO ESKAERA
En el Ayuntamiento de Barañain, el día	Barañaingo Udaleran, honako data honetan:
«FECHA_INSC.» / «FECHA_INSC_EUSK.»	«Inskribatuaren data» / «Inskribatuaren data euskaraz»
comparacion conjuntamente	homonio hauek ageri dira elkarrekin:
«MEMBRO_1.» de/And,	«MEMBRO_1.» de/And,
natural de:	«DIR_NAC_1.» / «DIR_NAC_1.»
«MEMBRO_2.» de/And,	«MEMBRO_2.» de/And,
natural de:	«DIR_NAC_2.» / «DIR_NAC_2.»
«DOMICILIO_1.» de «LOCALIDAD_1.»	«DOMICILIO_1.» de «LOCALIDAD_1.»
mayor de edad y con documento de identidad número:	adineko nagusi eta tokiko nortasun agerian emandako dokumentuak:
«DNI_1.»	«DNI_1.»
y de:	y de:
«MEMBRO_2.» de/And,	«MEMBRO_2.» de/And,
natural de:	«DIR_NAC_2.» / «DIR_NAC_2.»
«DOMICILIO_2.» de «LOCALIDAD_2.»	«DOMICILIO_2.» de «LOCALIDAD_2.»
mayor de edad y con documento de identidad número:	adineko nagusi eta tokiko nortasun agerian emandako dokumentuak:
«DNI_2.»	«DNI_2.»
Y manifestan	Eta adierazi dute
que desean ser inscritos como «Pareja estable» en el «Registro» correspondiente de este Ayuntamiento y que se someten a la Ordenanza reguladora y a las disposiciones que se dicten.	«Bikote gabea bilatu egiten» gisa inskribatu «Bikote gabea bilatu egiten» gisa inskribatu honako «Bikote gabea bilatu egiten» gisa inskribatu honako ordenantza eta disposizioen menpekoak direla eta horien eraginean jarriko direla.
«DOMICILIO_COMUN.» de Barañain/Barañain	«DOMICILIO_COMUN.» de Barañain/Barañain
Segunda: Que ninguno/a de ellos está afectado por deficiencias o anomalías psíquicas ni declarado incapaz para contraer matrimonio.	Bigarrena: Ez bati ere baten er arazo psikiko edo anormaltasun psikikoak ez direla inkapaz ez bati ere baten kontrahitzea egin.

SECRETARÍA / LEHENDAKARIA: TEL. 945 286 211. herra@barain.com

Tercero: Que entre los/as componentes no existe parentesco por consanguinidad o adopción en línea recta ni por consanguinidad hasta el segundo grado inclusive colateral.

Cuarto: Que ninguno/a de ellos/as está afectado por deficiencias o anomalías psíquicas ni declarado incapaz para contraer matrimonio.

Quinto: Que no desean que se anote en el Registro convenios reguladores de relaciones personales y patrimoniales entre ellos.

Sexto: Que autorizan la comprobación de datos en el Padrón Municipal de Barañain a esos efectos.

Séptimo: Que expresan la voluntad de constituir una pareja estable.

Y declaran bajo juramento que ninguno/a de ellos/as está inscrito en ningún otro Registro de Parejas de similar contenido y objeto.

Por todo lo cual,

Solicitan sean inscritos/as en el referido Registro Municipal de parejas estables no casadas en este Ayuntamiento de Barañain.

Hirugarrena: Bareratuakosen artean ez dagoela baten artean adinaren berdintasun edo adopzio bidezko ahaidetasunik, eta abokio lerrok bigarren maila bitarteko adinaren berdintasun ahaidetasunik ere.

Laugarrena: Hainetako inork ez duela akats edo anomalia psikikork eta ez dela ezkonuzko gaitasun gabea deklaratu izan.

Bosgarrena: Ez dutela nahi haren arteko Registro konbentio reguladorek de relaciones personales y patrimoniales entre ellos.

Seigarrena: Baiemena ematen dutela datuok Barañaingo Udai. Errolan egiazta dutekin, aplikatuzko ondoren begira.

Zazpigarrena: Bikote egonkor bat eratu nahi dutela eta hala adierazten dutela.

Eta zin eginez deklarazten dutela hainetako inork ez dugula inokribaturik, antzeko edulakiko edo beretik duen beste Bikote Egongoren baten.

Horregatik guztiagatik,

Eskaizten dute inokribatuak izateko Ezkondu gabeko bikote egongorren Udai. Erregistron, Barañaingo Udai honetan.

Fdo./Sbat: «MEMBRO_1.» Fdo./Sbat: «MEMBRO_2.»

SECRETARÍA / LEHENDAKARIA: TEL. 945 286 211. herra@barain.com

32 LEHEN



33 LEHEN



ALDATUA



ALDATUA



2017ko abenduaren 9an Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuak sustatutako Nafarroako Kirol Jokoen pilota modalitateko finalak jokatu ziren. Herritarrak Behatokiari ohartarazi bezala, sari ematean eta txapeldunei banatu zitzaizkien dominetan euskarak ez zuen batera lekurik izan, “nahiz eta parte hartzaile gehienak D eredukoak izan”. Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuak bere akatsa onartu eta dominak ele bietan egiten zituztela agintzeaz gain, euskara eta gaztelaniaren presentzia maila berean egoteko neurriak hartuko zituztela esan zuen. **34**

Eusko Jaurlaritzak torturari buruz eginiko ikerketaren 3 txosten aurkeztu zituen. Horietatik bi, exekuzio txostena eta ondorioena, euskaraz egin zituen, baina txosten osoa gaztelaniaz egin zen. Eusko Jaurlaritzari herritarraren kexa helarazi zitzaion eta “salbuespenez eta txostenaren konplexutasunagatik eta luzeragatik” izan zela erantzun zigun Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendariak. Hasieratik euskaraz ere egon beharko lukeen agiria 2018ko lehen hiruhilekoan itzuli zuten. **35**

Batzuetan erakunde publikoek onartzen dituzten ordenantzak ere ez dira behar bezala betetzen eta horren aurrean, zenbait herritar oso adi egoten dira, berdintasunez artatuak izateko euren eskubidearen aldarria egiteko. Bada, Donostiako Boulevard zumardiko turismo-bulegoko atarian zegoen mapa turistikoak Donostiako Udaleko legea betetzen ez zuelako salaketa jarri zuen herritarrak. Donostiako Turismo Sailak arrazoia zuela ikusita, mapa berria prestatu zuen, ordenantzan aipatu bezala euskarari lehentasuna emanez. **36**

34 LEHEN



ALDATUA



35 ALDATUA

Euskadin gertatutako tortura eta tratu txarrak ikertzeko proiektua (1960-2014)

Hortik ateratzen dira:

Francisco Rubio
Madrilgo Unibertsitatearen Espainiako Giza Eskubideen Zuzendaria
Carlos Madoz Sarriena
Madrilgo Unibertsitatearen Espainiako Giza Eskubideen Zuzendaria
Laura Pijo
Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen Zuzendaria

36 LEHEN



ALDATUA



lazko txostenean aipatzen zen moduan, bestalde, hogeitaz urteren ondoren Iruñeko Udalak euskarazko haur eskolen eskaintza handitu zuen, eta horri esker, hasierako bi haur eskolei beste bi gehitu zitzaizkien (Donibane auzokoa eta Arrosadiako Printzearen Harresia eskola). Bada, 2017 urtearen hasieran, 0-3 urte bitarteko haur eskolen eskaintza are gehiago zabaldu da, Nafarroako Gobernuaren eskumeneko bost eskoletatik bitan euskarazko lerroak zabaldu direlako; Alde Zaharrekoan eta Sanduzelai auzokoan. Familiek eta Iruñerriko euskalgintzako kideek urtetan egindako ahaleginari esker lortutako urrats garrantzitsua da, baina oraindik ez nahikoa. Izan ere, dagoen eskaerari (familien % 38,5ek euskaraz matrikulatu nahiko lituzkete euren seme-alabak) oraindik ez zaio behar den erantzuna (eskaintza % 26,6koa da) ematen. Urrats gehiago eman behar dira herritarren berdintasuna eta euren hizkuntza-eskubideak bermatzeko. **37**

Iruñeko haur eskolez gain, Nafarroako eremu ez-euskalduna deiturikoan dauden beste hamar herritan (aurreko urteko aurrematrikulazio kanpainan Caparroso, Lodosa, Noain eta Tafalla herrietan lortu zen gutxieneko ikasle kopurura iristea) aurrerapausoa eman zen 2017an D ereduaren matrikulatzeko aukera bertoko ikastetxe publikotan eskainiz: Allo, Antzin, Castejon, Cintruenigo, Larraga, Los Arcos, Mendigorria, Azkoien, Zangoza eta Tutera herrietan. Hau ere familia askoren eta euskalgintzako kideen urteetako lanaren emaitza izan da.

2016an zehar herri gogoak sustatuta, euskaraz bizitzeko ahalduntze saio kolektibo pila bat bideratu ziren Euskal Herriko hainbat txokotan (Egian euskaraz bizi nahi dugulako, Hernanin euskara ari du, Baietz 40 egun euskaraz Lasarte-Orian, 75 ordu euskaraz Agurainen, 100 da 100... 200 ordu euskaraz Astigarragan, Baietz 365! Arrigorriagan, etab.). Horiek eredu hartuta, euskalgintzak eta erakundeek elkarlanean bultzatuta, Euskal Herri osoan aldi berean eginen den egitasmo erraldoiaren aurkezpena egin zen 2017aren amaieran; Euskaraldia “11 egun euskaraz”. Hizkuntza ohiturak aldatuz euskal hiztunen aktibazioa xede duen ekimena da eta 2018ko azaroa eta abendua bitartean egingo da. Txalogarria da zinez, herritarrek aldiro euskaraz bizitzeko agertzen duten prestutasuna eta gogoia. Orain erakundeek dagokie horri behar bezalako erantzuna ematea. **38**

37



38



Abokatuen elkargoetan aspaldi sortu ziren euskara sustatzeko taldeak, baina 2017 urtearen hasieran urrats berria eman zen Bizkaiko eta Gipuzkoako elkargoetan, euskara dinamizatzailerak kontratatu zituztelako abokatuen artean euskararen erabilera sustatzeko.

Ipar Euskal Herrian, lege babesik ez izan arren, herritarrek eginiko lan eskergak (Seaskako gurasoek, euskalgintzako jendeak, zenbait herriko etxek...) bere fruituak eman ditu Bernat Etxepare lizeo berriaren irekierarekin; Baionan kokatutako Ipar Euskal Herriko euskal lizeo bakarra. 2017ko irailaren 16an martxan jarri zen eta bertan, sail orokorraz gain, lanbide heziketa euskaraz ikasi ahal izango dute Lapurdi, Nafarroa Behera eta Zuberoatik heldutako 300 ikaslek. **39**

2017ko martxoaren 30ean hasi zen Korrikaren hogeigarren edizioa Otxandion. Hamaika egun, 2.557 km, zazpi herrialde eta milaka korrikalariren ostean, Iruñera heldu zen. Joseba Sarrionaindia idazlearen mezuarekin amaitutzat eman zen euskararen aldeko lasterketa, herri gogoaren ahalduntze kolektiboaren beste adibide garrantzitsu bat. **40**

Abenduan Kontseiluaren deiari jarraituz, milaka herritar atera ziren kalera Nafarroako Gobernuak irakaskuntzaren funtzio publikoan zerrenda bakarraren aldeko hautuaren inguruan hartutako erabakia babestuz. Horretaz gain, bazterkeriaren aurka eta euskaldunen eskubideen aldeko manifestazioa izan zen, euskaraz bizi nahi duen herri baten aldarri ozena. **41**

39




40



41



01 Osasungintza



Osasungintza

Osasungintza izan da, beste behin, herritarren artean arrangura gehien eragin duen arloetako bat. Lehen arretako zerbitzu-unitatean, egokitu zaion familia medikuarekin, erizainarekin, pediatrarekin edota larrialdi zerbitzuetan beren hizkuntzan ezin izan dutelako mintzatu kexu agertu dira euskal hiztunak. Toki desberdinetan gertatu da egoera hau 2017an.

Hainbatetan eta hainbatetan osasun asistentziarekin, osasungintzak berezkoa duen zerbitzuarekin lotura zuzena duten egoeretan deseroso sentitu dira herritarrak ezin izan dutelako zerbitzua eurek aukeratutako hizkuntzan jaso.



Donostiako Protokoloa: 17. neurria

Administrazioek hizkuntza gutxituan (idatziz zein ahoz) ematen dizkiete beren zerbitzuak herritarrei.

“Getariako osasun etxera joan gara umearen kontu batengatik. Pediatrak ez daki euskaraz, beraz, gure txikiak ez dio ezer ulertu”.

“Donostiako Groseko anbulatorioko oftalmologia sailean, erizainak eta oftalmologoak gaztelaniaz egin didate, euskara hautatuta dudan arren harremanetarako hizkuntza gisa”.

Astelehen eguerdian, apirilak 24, dermatologoarengana joan nintzen San Martin osasun zentroan. Ez zen euskalduna. Gaztelaniaz egitera behartua izan nintzen. Nire azaleko muestra batzuk hartzera bidali ninduen laugarren solairura. Bertako erizaina ez zen euskalduna. Hortik sarrera nagusiko bulegora bidali ninduten eta bertan zegoen 50 urte inguruko gizona, atsegina bai, baino berriz ere gaztelaniaz egitera behartu ninduten. Osasun zerbitzua euskaraz nahi dut”.

“Mamografia egitera joan naiz Irurtzunera Osasunbideak bularreko minbiziari aurrea hartzeko egiten duen kanpainari erantzunez. Ez harreran zegoen langileak, ez proba egin didanak, ez zekiten euskaraz. Hainbeste kostatzen da eremu euskaldunera euskaraz dakiten profesionalak bidaltzea?”

“Atzo hiru urteko umea buruan ebakiagaz Durangoko larrialdietara joan ginen. ‘¿Esta niña sólo sabe euskara? Pues tenemos un problema’esan zidan medikuak”.



“Hainbat egoeratan deseroso sentitu dira herritarrak, ezin izan dutelako zerbitzua aukeratutako hizkuntzan jaso.”

“Urte eta erdi inguruko haurra dugu. Sopolako osasun etxean pediatria euskalduna eskatu dugu eta Osakidetza pediatria euskaldunak artatzea nahi izanez gero Urdulizko osasun etxera joateko erantzun digu. Zergatik mugitu behar dugu? Umeak pediatria zerbitzua geure herrian bertan jasotzea nahi dugu”.



Donostiako Protokoloa: 26. neurria

Administrazioak kontuan hartzen ditu hizkuntza-eskubideak osasun-zerbitzuak emateko garaian.

“Barañain II osasun etxean seme-alabentzako pediatria euskalduna eskatu nuen lehenbizikoz 2014ko abenduan. Erantzunik jaso ez nuen berriz ere eskaera aurkeztu nuen 2015ean. Gaur 2017ko martxoaren 22a ez dut inongo erantzunik jaso. Osasun etxean pediatretako batek erretiroa hartu du berriki eta pediatria berria egokitu diete seme-alabei. Ez da euskalduna. Ondorioz, ez ditu seme-alabak ulertzen eta seme-alabek berak egiten dizkien galderak ulertu arren, erantzuteko orduan mutu gelditzen dira, zeharo moztuta. Ze neurri hartuko du Osasunbideak 2 eta 6 urteko haurrek kalitatezko zerbitzua, baztertzalea ez den zerbitzua, jaso dezaten?”.

“Lau urteko alabarekin larrialdietara joan eta arreta eman zigun sendagileak ez zekien euskaraz. Beraz, arreta guztia gaztelaniaz jaso genuen, elkarrizketa guztiak helduok egin behar izan genituen haurrak ez baitzion ulertzen. Ez genuen kalitatezko erantzunik jaso”.

“Gaur goizean Donostiako Groseko anbulatoriora joan naiz 9:00etan pixa lagin bat eramatera. Euskaraz egin didan arren, arreta egin didaten guztiek (informazio gunean zegoen emakumea, pixa laginak hartzen

zituzten bi erizainak et odola atera didanak) gaztelaniaz aritu zaizkit. Azkenean gaztelaniaz egitera behartu naute eta erabat diskriminatua sentitu naiz. Nola da posible zerbitzu publikoetan horrelakorik gertatzea? Gaztelaniarekin izanez gero, zer gertatuko litzateke?”

“Zumaiako osasun zentroko emaginak (ez dakit bakarra ote den) ez daki euskaraz. Gaztelaniaz agurtu nauenez, euskaraz ba ote dakien galdetu diot eta ezetz erantzun dit. Ulertzen al duen galdetu diot, nik euskaraz egin ahal izateko, baina erantzun dit elkarrizketa informal bat ulertu dezakeela, baina osasun kontsulta bat ezetz. Beraz, gaztelaniaz egin behar izan dut”.

Familia-medikua, pediatria edo espezialista euskalduna egokitu zaien kasuetan, hauen ordezkapenak egiteko orduan euskaldunak aurkitzeko zailtasunak handiak izaten segitzen dute.



Donostiako Protokoloa: 18. neurria

Jendaurrean diharduten langileek hizkuntza-gaitasun egokia dutela bermatzen dute administrazioek.

“Semearen pediatrarenera joan gara (euskalduna guk hala eskatuta) Irungo Gipuzkoa etorbideko osasun zentrorra, baina ordezko bat zegoen eta ez zekien euskaraz ezertxo ere”.

“Emaginaren kontsultara joan naiz Usurbilen. Ordezko emagina zegoen eta euskaraz ez zekienez gaztelaniaz aritu behar izan dugu. Informazio orriak ere gaztelania hutsean luzatu dizkit”.

“Ordezkapenak egiteko orduan euskaldunak aurkitzeko zailtasunak handiak izaten segitzen dute.”

“Ordezko familia-mediku erdalduna ekarri dute Itsasondora bertako medikuaren oporrak ordezkatzeko. Euskaraz egiteko eskatu eta, mesedez ezetz”.

“Trailaren batean artatu gintuen pediatria ordezkoak ez zekien gure hizkuntzan mintzatzen. Usurbilgo ohiko pediatria euskaraz moldatzen da. Gure haurraren hizkuntza euskara da”.

“2017ko azaroaren 5ean Oiartzungo osasun etxera joan behar izan genuen pediatriarenera. Ordezkoa zegoen, baina erdalduna zen, ez zekien euskaraz. Azaroaren 10ean pediatriarenera itzuli behar izan genuen berriro. Oraingoan beste ordezko bat zegoen, hau ere erdalduna. Gure eskubideak errespetatzeko besterik ez dugu eskatzen, sendagilearekin euskaraz hitz egiteko eskubidea”.

“Trailaren 20an, Intxaurrendoko osasun etxean, ordezko medikua, betikoaren oporrak betetzen zituena erdalduna zen eta ez ninduen euskaraz artatu”.

“Itsasondoko osasun etxean berriz ere familia medikuaren ordezkoa erdalduna jarri dute. Abenduaren 11n egon nintzen”.

Gauzak horrela, udako oporretan sendagile euskaldunak eskatu zituen Udalerri Euskaldunetako Mankomunitateak beste behin.



Donostiako Protokoloa: 23. neurria

Bai egungo langileek bai langile berriek hizkuntza-gaitasun egokia dutela bermatzen du Administrazioak.



Errealitate honek erabat baldintzatzen du herritarrei ematen zaien osasun arretaren kalitatea. Ez dira herri horietako herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzen, eta ez dira, ezta ere, herritarren behar linguistikoak asebetetzen.

Egoera honen aurrean herritarrek dagozkien hizkuntza-eskubideen ejektizian grina eta borondatea erakusten segitzen dute.



Bien bitartean muga eta hutsune handiak daude medikuntza ikasketak euskaraz egiteko eta medikuntzako euskarazko adarreen izena eman duten ikasleek, euskaraz ezin dutela ikasi salatu dute behin baino gehiagotan. Bigarren zikloa ospitaleetan egiten dute eta, ospitaletik ospitalera desberdintasunak badaude ere, gehienetan gaztelaniaz jardun behar izaten dute. Barneko Mediku Egoiliar azterketa ere gaztelaniaz egiten dute. Are larriagoa dena, graduan sartzeko, nota da irizpide bakarra eta euskaraz eskaintzen diren plaza batzuk hutsik geratzen dira.

Donostiako Protokoloa: 73. neurria

Unibertsitate mailako ikasgai guztiak hizkuntza gutxituan eskuragarri daude.

Osasun-asistentziarekin zuzeneko lotura duten urraketa egoera horietaz gain, harrerako unitateetan euskaraz jarduteko oztopoak izan dituzte herritarrek.

Donostiako Protokoloa: 17. neurria

Administrazioek hizkuntza gutxituan (idatziz zein ahoz) ematen dizkiete beren zerbitzuak herritarrei.

“Ondarroako anbulatorioko larrialdi-zerbitzura joan nintzen semearekin hagineta mina zuelako eta sarreran harrera egin zigun pertsonak ez zuen euskaraz piperrik ere ulertzen. ‘Semeak hagineta mina dauka’ esan eta ‘en castellano por favor’, ez zuen ahaleginik egin ere ulertzen saiatzeko. Lotsagarria, non eta Ondarrun! Eskerrak barruko medikuak euskaraz artatu gintuen, lehen hitza gaztelaniaz egin zigun arren, nik euskaraz erantzutean euskaraz jarraitu zuen”.

“Arratsaldean Antsoaingo osasun etxera paper baten bila joan nintzen. Harreran ez zegoen euskaldunik. Erdaraz egin behar izan nuen”.

Abuztu hasieran Galdakaoko ospitaleko larrialdi zerbitzuetara lagundu nion senarrari. Zain egon ginen denboran bozgorailu bidez egin zituzten ohar guztiak gaztelaniaz izan ziren, bakar bat bera ere ez euskaraz edo ele bietan. Gerriko minez joan eta bihotzeko minez itzuli ginen, Galdakaoko ospitalean euskarari zer leku ematen zaion ikusita”.

“Gurutzetako ospitaleko harreran “Informazioa” atalean ezin izan naute euskaraz artatu ospitaleratze ziurtagiria eskatu dudanean.

Semearen ospitaleratzeak iraun duen 6 egunetan (abendua 13tik 19ra), langile bakarrak artatu gaitu euskaraz. Gainerako guztiek gaztelaniaz jardun dute. Zirujau, erizain, erizain laguntzaile eta medikuek. Semeak euskaraz baino ez dakienez, ezin izaten zien ulertu esandakoa, horrek sortzen duen ezinegonarekin”.

Baita telefono bidezko arretan ere

“Zer deritzozue Londoneko turismo bulegora deitzea eta arrera egiten dizun langileak frantsesez bakarrik egitea? Bada gauza bera gertatzen da Galdakaoko Ospitaleko hitzorduek eskatzen diren tokian; euskaraz hitz egin eta gaztelaniaz erantzuten dutela. Nik zerbitzua euskaraz izatea aukeratu dut, baina ez du ezertarako balio, ez baitidate kasurik egiten. Zergatik urratzen dira nire eskubideak administrazio publiko batean? Zergatik ez dituzte Euskal Herriko herritaren aukerak errespetatzen? Kalitatezko zerbitzu publiko bat nahi dut, zor zaigu”.


“Osakidetzan PADI zerbitzua (Haurren Hortzak Zaintzeko Programa) kudeatzeko telefono zenbakira deitu eta gaztelaniaz erantzun didate. Euskarazko zerbitzua eskatuta, gaur ez dela posible esan didate. Bi lagun omen daude euskaraz erantzuten dutenak, baina bat oporretan eta bestea bajan dagoela esan dit telefonoz beste alde zegoen pertsonak. Ezin izan didate euskaraz erantzun”.

“Gaur goizean 9:55ean Gurutzetako ospitalera deitu dut Urologia departamentura (046006405) zita bat eskatzeko eta emakumeari (ez dit izenik eman) euskaraz hitz egin nahi nuela esatean ezezkoa erantzun dit, ez zekiela eta”.

Idatzizko euskarrietan mediku txostenak edota mediku azterketaren emaitzak, jakinarazpenak, egiaztagirak, jarraibideak erdara hutsean jaso izana eta gaixotasun edo botika bati buruzko instrukzio-orriak erdara hutsean jasotzeagatik ere kexatu dira herritarrak.

“Donostiako ospitaleko oftalmologia sailean azterketa egin didan erizainak gaztelaniaz eman dizkit OCTa egiteko jarraibideak, harremanetarako hizkuntza euskara hautatuta dudan arren”.

“Mezu honen bidez eskatu nahi nioke ‘ELERTE’ laborategiari TUSSIDANE botikaren kutxa eta prospektua frantsesez gain euskaraz ere ematea. Alde batetik botikak eri garelarik hartzen baititugu, eta eri garelarik gure ama-hizkuntza erreskiago erabiltzen dugulako beste hizkuntza bat baino; Euskal Herrian ainitzen ama-hizkuntza euskara da”.



“Koloneko minbiziaren prebentzioa sustatzeko kanpainako gutuna jaso dut, baita bidali beharreko txartela ere, den-dena gaztelania hutsean, gutuneko idazpurua eta kanpainaren zigilua kenduta”.

“Nafarroako Gobernuak osasun zentroetara (Ornoz Mugairekora kasu) bidali dituen informazio orri batzuk gaztelania hutsean daude. Euskarari eta euskaraz bizi nahi dugunoi behingoz behar den errekonozimendua eman behar zaigu”.

“Senide bat lagundu nuen ebakuntza egiteko Iruñeko San Juan de Dios ospitalera. Ebakuntza sare publikotik bideratua zen, anbulatoriotik. Alta ematean ziurtagiria eskatu nuen lanerako eta erantzun zidaten euskaraz ez zegoela egiterik, ezta ele biz ere. Urriaren 30ean izan zen”.

Bestalde, langileak euskaldunak izanik ere gaztelaniaz lan egitera behartuta daude programa informatikoak, tresnak eta mota askotako bitartekoak ez daudelako euskaraz



Donostiako Protokoloa: 47. neurria

Administrazioak - neurriak hartzen ditu lan-jarduna hizkuntza gutxituan egin dadin.

“Ez dut baja agiria euskaraz jaso. Medikua euskalduna da, berarekin euskaraz aritu naiz eta euskaraz idatzitako agiria eskatu diot, baina programa informatikoak ez duela aukera hori eskaintzen esan dit.”

“Ebakuntza kirurgikoa egitekotan naiz, tronpen lotura. Ebakuntzari buruzko baimen-informatuaren agiria ez dut euskaraz jaso. Ginekologoari euskarazko alea eskatu diot, ordenagailuko programak eskaintzen dizkion aukeren artean bila ibili da, baina ez du euskarazko alerik topatu”.

Eta langileak erdaraz lan egitera behartuta egoteak ondorio zuzena du herritarrei ematen zaien zerbitzuan.

Hizkuntza-paisaiak funtzio informatiboa betetzeaz gain, hizkuntzari ematen zaion balioa islatzen du. Paisaia linguistikoan zein komunikazio estandarizatueta euskarazko aukera jada bermaturik egon behar bazuen ere, badago zer hobetu.

“Basurtoko ospitalean gaztelania hutsezko ohar ugari daude”


“Gurutzetako ospitaleko 4D solairuan gaztelania hutsezko oharrak daude”.

“Txagorritxu ospitaleko geletan dauden kartelak gaztelania hutsean daude. Espero dut ahalik eta lasterren itzultzea eta euskaraz ere agertzea”.

“Zallako osasun etxean ohar ugari gaztelania hutsean daude”.

“Iruñeko obstetriziako itxarongelan dauden oharrak ez daude euskaraz”. Informazioa euskaraz jaso nahi dut, euskaraz bizi nahi dut”.

“Neurri interesgarria
 abiatu da arreta
 euskaraz eskaintzeko:
 Donostiako Ospitaleko
 errehabilitazio
 unitatean zirkuitu
 elebiduna jarri dute
 martxan.”



Profesionalen hizkuntza gaitasunean eta formazioan, protokoloetan, hizkuntza-paisaian, lan-tresnak egokitzen... bide luzea dago oraindik egiteko herritarren hizkuntza-eskubideen babesean.

Bide horretan neurri interesgarri bat abiatu da 2017an arreta euskaraz eskatzen dutenei zerbitzua euskaraz bermatzeko: Donostiako Ospitaleko errehabilitazio unitatean zirkuitu elebiduna jarri dute martxan.

Baina, aurrerapauso horren parean, herritar guztien aukera berdintasuna bermatzeko artatzen duen langileak, lurraldeko hizkuntzan komunikatzeko gaitasuna izatea ezinbesteko elementu bat izanik ere, Osakidetza Zuzendaritzak eta Osasunbideak kontrako norabidean doazen erabakiak hartu dituzte 2017an. Osakidetza Debagoienako Ospitalean hizkuntza-eskakizuna zuten Pediatria, Traumatologia, Barne Medikuntza eta Oftalmologia espezialitatetako medikuntza lanpostuei euskara ezagutzaren eskakizuna kendu die.


Osasunbideak, berriz, plantilla organikoan hizkuntza-eskakizuna ezarria zuten erizain eta zeladoreen hainbat lanposturi kendu egin die elebidun izaera.

Batean kale, bestean bale, herritarren eskubide linguistikoak bermatzeak determinazio handiagoz jokatzeari eskatzen du.

OSAKIDETZAREN LAN DEIALDIA

Lanpostu gehienek beren hizkuntza-eskakizuna dute. Salbuespen bezala, zuzendaritza karguetarako zuzenean egindako izendapenak daude.

02 Herrizaingoa Segurtasuna



Herrizaingoa

Segurtasuna

Trafiko jardueretan, polizia-etxeetan, larrialdi zerbitzuetan, herritarrentzako arreta guneetan... euskararen lurraldean gaztelania eta frantsesa dira lehentasunezko hizkuntza eta erabateko bermea eskaintzen dutenak.

Horrela, segurtasun kidegoetako agenteekiko ahozko harremanetan zailtasunak aurkitzen dituzte administratuek euskaraz jarduteko. Gaztelania da ezagutu beharreko hizkuntza herritarra polizia-etxetara joaten denean Espainiako Barne Ministerioak Euskal Herrian dituen polizia-etxeetan.



Donostiako Protokoloa: 38. neurria

Administrazioak neurriak hartzen ditu poliziako kideak hizkuntza gutxituan aritzeko gai direla bermatzeko.

“Donostiako polizia-etxe atarira hurbilduta sarrerako poliziak galdetu dit espainolez ea zer nahi nuen edo zertara nindoan. Euskaraz erantzun diot esanez, silabaka ia, erdaldun batentzako ere euskararik ulerterrazena izan litekeenean: ‘In-bi-ta-zio kar-ta bat Txi-le-ra-ko’. ‘No entiendo, a mí me hablas en español. ¿Qué quieres?’ Are polikiago erantzun diot berriro silabaka euskaraz. ‘Que no entiendo. Que a mí me hables en español. ¿Ves lo que pone aquí?’ Eta jarrera oldarkorrean (eta izango du gutxienez 100 kiloko gorpuzkera), hasten zait erakusten bere uniformeko Espainiako bandera eta ‘Policia Nacional’ hitzak. Mesedez eskatu diot niri behintzat edukazioz hitz egiteko eta ez builaka. Ezinbestekoa nuen nire Txileko lagunentzako gonbidapen gutuna lortzea, eta etsita esan diot ‘una carta de invitación para Chile’.

(Hemen jasotakoa gertaeraren laburpena da. Jasandako tratu bidegabea dela-eta, herritarrak salaketa jarri eta epaiketa izango da.)

“Abuztuaren 14an, 16:50ean, Iruñeko polizia-etxean sartu eta leihatilan zegoen poliziari euskaraz hitz egitean hark moztu eta ‘en castellano’ erran zuen. Harriduraz begiratu eta nik ‘Por favor... ¿no?’ Eta berak ‘Mmmm.... bueno castellano’. Errespetuz eskatzeko inongo intentziorik gabe. Ez dut beraiengandik apenas deus espero, baina errespetua gutxienez, bai”.

Baita ertzain-etxeetara hurbiltzen denean ere.



Donostiako Protokoloa: 18. neurria

Jendurrean diharduten langileek hizkuntza-gaitasun egokia dutela bermatzen dute administrazioek.

“Herenegun Ertzaintzak Gasteizko Olagibelkalean duen komisaldegira joan nintzen zalantza bat argitzera. Euskaraz galdetu eta ertzainak gaztelaniaz jarraitu zuen euskarari aukerarik eman gabe”.

“Irungo ertzain-etxera joan nintzen eta leihatilan zegoen ertzaina gaztelaniaz hasi zitzaidan. Galdetu nion euskaraz ez ote zekien eta ezetz erantzun zidan, ulertu egiten zuela. Nik euskaraz egin arren, berak gaztelaniaz erantzuten zuen, egia esan ez dakit nik esaten niona ulertzen ote zuen”.

Berdin Udaltzaingoaren bulegoetan ere.

“Barañainen bizi naiz eta udaltzaingoaren bulegora joan naiz gaur. Ezin izan dut euskaraz egin langile euskaldunak ez zegoelako”.

“Iruñeko Udaltzaingoaren bulegora joan naiz eguerdiko 12:30 aldera. Eraikinean sartu eta bertan zegoen udaltzainari euskaraz egin diot. Ez nau euskaraz artatu”.

Telefono bidezko hartu-emanetarako arreta herritarrak aukeratutako hizkuntzan emateko protokoloak zehazturik baldin badaude ere, maiz egiten dute huts eta herritarrak erdaraz mintzatzera beharturik ikusten du bere burua.

“Azaroaren 26an, kalean izandako egoera baten inguruan Donostiako Udaleko Udaltzaingora deitu nuen eta gaztelaniaz hitz egiteko eskatu zidatenean, euskaraz artatuko ninduenik ote zegoen galdetuta, ezezkoa erantzun zidaten. Segidan Donostiako Ertzaintzara deitu nuen eta egoera berarekin egin nuen topo. Ezin izan nuen burutu asmo nuen gestioa euskaraz egin ahal izan, ez Udaltzaingoan ez eta Ertzaintzan ere, euskaraz artatuko ninduenik ez zegoelako”.

“Basauriko Udaltzaingoan telefono bidezko lehen arreta gaztelaniaz eman zait. Euskarazkoa eskatu eta ez dakitela esan didate”.

Kalean patruila, zaintza edo trafiko lanetan diharduten agenteekin ere ahazko harremana euskaraz ez bermatzeagatik kexatu dira herritarrak.

“Bart gauean alkoholemia kontrol batean gelditu gintuzten udaltzainek Irungo Iparralde etorbidean. Galdera guztiak gaztelaniaz egin zizkiguten. Nik euskaraz erantzun nien arren, ez zuten deitu euskaraz zekien inor eta ez ziguten euskaraz egin. Errespetu falta galanta Korrika hasi den une honetan”.

Atzo, maiatzak 11, gauean Sopolako udaltzainek gerarazi eta identifikatu ninduten. Gaztelaniaz zuzendu zitzaizkidanez, euskaraz egitea nahi nuela adierazi nien. Gaztelaniaz egingo zidatela erantzun zidaten. Nolatan holako erantzuna? Badakit eurengandik zerbitzua euskaraz jasotzeko eskubidea dudala, legez aitortua, gainera. Erabat babesgabe sentitu nintzen”.

“Nagusikeriaz, errespetu faltaz eta tonu zakarrarekin jokatzaren duten agenteen jokabidea ez da erabat desagertu herritarrak euskaraz aritzea eskatzen duenean.”

“Joan den larunbatean, abenduaren 23an, Añorgan, makropoligonoaren aurka egin zen mobilizazioaren bukaeran ertzain batek gune bat uzteko eskatu zidan gaztelaniaz. Nik euskaraz hitz egiteko eskatu nion eta gaztelaniaz jarraitu zuen, ulertu bai, baina, ez zekiela argudiatuta. Nik EAEn bi hizkuntza ofizial zeudela eta bere egin beharra euskara ikastea zela esan nionean identifikatzeko eskatu zidan errespetu falta argudiatuta. Salaketa jarriko zidala aipatu zidan. Nire hizkuntza- eskubideak errespetatzeko eskaera egin eta salaketa!”.

“Atzo Ormaiztegin txirrindula proba zela eta, Ertzaintzaren auto bat zihoan txirrindularien aurretik segurtasuna zaintzen eta ikusleei baztertzeo agintzen. Bada mezuak gaztelaniaz besterik ez zituzten eman”.

“Joan den larunbatean, ekainak 10, Getaria-Zarautz triatloia izan zen eta errepidea itxi egin zuten ibilgailuentzat. Bidean zegoen ertzaintzari ‘Aizu, Zarautzera joateko?’ galdetu zion senarrak eta ‘no se euskera, ¿me lo dices en castellano?’ Nola liteke hainbeste urteren ondoren, hainbat ertzainek gutxieneko bat ere ez jakitea euskaraz?”

Adibide esanguratsua da Lekeitioko institututik Eusko Legebiltzarrera bisitan joan ziren ikasleei gertatutakoa:

“Maiatzaren 10ean joan ginen Legebiltzarrera. Bisitari hasiera emateko, sarreran dagoen bulegoan zeuden ertzain birengana abiatu ginen: ‘egun on, Lekeitioko institututik gatoz...’ esan orduko, euretako batek ‘en castellano por favor’ erantzun zigun”. **1**

Nagusikeriaz, errespetu faltaz eta tonu zakarrarekin jokatzeko duten agenteen jokabidea ez da erabat desagertu herritarrek euskaraz aritzea eskatzen duenean.

“Larunbatean 5 urteko alabarekin nindoala, ertzain bat oldartu zitzaidan euskaraz artatua izan nendin eskatzeagatik. Hau Espainia dela, nire NA-ari so egiteko, etab. esan zizkidan oso era oldarkorren”.

Idatzizko erabilerari dagokionez, ohikoa da nortasun agiria, isunak, gidabaimena edota bestelako agiriak erdaraz luzatzea.

“DGTren Nafarroako Herrialde Zuzendaritzak isunaren jakinarazpena gaztelania hutsean bidali du”. **2**

“DGTren Nafarroako Herrialde Ordezkaritzatik gidabaimena bidali didate etxera. Gidabaimena bera eta harekin batera heldu den gutuna gaztelania hutsean daude, ni legeak euskara ofizial izendatzen duen eremuan bizi banaiz ere. Gainera, udalerriaren izena ez dago zuzen idatzita (Araquil jartzen du Arakil beharrean)”. **3**

“Nortasun agiria Nafarroan elebiduna izatea eskatu nuen eta hau erantzun didate: ez dela derrigorrezkoa euskara ez delako ofiziala Nafarroa osoan. Nik dakidala, derrigorrezkoa ez, baina ez dago debekatuta ere”.



“Iruñeko Udalaren jakinarazpena jaso dugu otsailean. Ez dago euskaraz, gaztelania huts-hutsean baino ez da. ‘OVP-SEG. CIUDADANA’. Guk aurretik eskaera euskaraz aurkeztu genuen eta hari loturiko jakinarazpena da orain jaso duguna.” **4**

“Trungo ertzain-etxera joan behar izan dut eta eskertzekoa da harrera euskaraz egitea. Hala ere gero txostena gaztelaniaz idatzita eman didate (idatziz hobeki moldatzen zen erdaraz).” **5**

Azpimarragarria da konponbiderik errazena duten kasuetan ere (trafiko seinaleetan, zirkulazioa bideratzeko oharretan) ohikoa izaten dela euskarari presentziarik ez eskaintzea eta, ondorioz, euskal hiztunek jarraibide horiek erdaraz jaso behar izatea. **5**

“Iruñeko San Saturnino kalean obrak zirela eta, ibilgailua erretiratzeko eskatzen zuen Udaltzaingoaren oharra ez zegoen euskaraz, gaztelania hutsean baizik.” **6**

“Zizur Zendeako Udalak Miraballes ikastetxearen atarian jarrita dituen bide-seinaleak ez daude euskaraz.” **7**




6 Adibide hauek erakusten duten moduan, Segurtasun kidegoetako agenteak elebidunak ez izateak ondorio baztertzailerak ditu herritarrentzako. Bada, Nafarroako Gobernuak foruzain-kabo izateko 14 lanpostu kategoriaz igotzeko deialdia egin zuen 2017an. Destinoa eremu “ez euskaldunean” duten lanpostuetan ingelesa, frantsesa edota alemana jakiteak 5 puntu ematen ditu hizkuntza bakoitzeko, euskaraz jakiteak, berriz, zero.

Eusko Jaurlaritzak, berriz, oinarritzko eskalako agente izateko 300 lanpostu betetzeko deialdia egin du 2017an. Lanpostu guztiei ezarri zaie 1. hizkuntza-eskakizuna baina horietatik erdiak baino ez du derrigortasun data finkatuta.

Jendarte osoarentzako kalitatezko zerbitzua emateko, lurraldeko hizkuntza erabiltzeko gaitasuna duten langileak eta hauen antolaketa egokia ezinbestekoak dira administratu guztien hizkuntza hautua errespetatu eta berdintasunez eta kalitatez artatzeko.

03 Justizia



Justizia

Euskararen lurralde osoan oraino ezinezkoa da auzialdi bat hasieratik bukaerara euskaraz egitea.

Frantziako Konstituzioak frantsesa hartzen du hizkuntza ofizial bakartzat eta gainontzeko hizkuntza guztiak erabat baztertzen ditu. Espainiako Gobernuaren eskumenekoak diren epaileek, fiskalek, abokatuek eta prokuradoreek, berriz, ez daukate euskara jakin beharrik, ez zaie ezagutzarik eskatzen bi hizkuntza ofizial dituzten erkidegoetan jarduteko.



Donostiako Protokoloa: 34. neurria

Justizia-administrazioak neurri egokiak aplikatzen ditu epaile, fiskal, idazkari eta bestelako profesionalen hizkuntza-gaitasuna eskuratu dezaten.

Horrela, ez dago inolako erraztasunik euskaraz aritzeko Justizia Administrazioan eta euskaraz jardun nahi den kasuetan, gaztelaniaz egin nahi den kasuetan ez bezala, aurretiaz jakinarazi behar zaio epaitegiari euskaraz jarduteko asmoa dagoela. Epaitegiek automatikoki itzultzailearen bidez jardutera behartzen dute herritarra.



Donostiako Protokoloa: 32. neurria

Tratamendu-berdintasunaren printzipioari jarraiki, hizkuntza-komunitateko kideek eskubidea dute ahoz nahiz idatziz zuzenean jarduteko, interpretarik gabe.

“Bizkaiko Probintzia Auzitegian epaiketa azkar batean lekuko gisa deklaratzera deituta nengoen gaur. 3. aretoan egin da epaiketa. Nire txanda iritsi denean euskaraz deklaratu nahi dudala jakinarazi dut eta epaileak aretotik ateratzeko agindu dit itzultzailea etorri bitartean. 15 minutura iritsi da itzultzailea, baina ordurako epaileak beste epaiketa bati ekin dio. Hori aski ez, eta bigarren epaiketa bat ere sartu du tartean, itzultzailea bertan zen arren. Bi ordu egon behar izan dut zain deklaratzera sartu aurretik. Nire txanda iritsi denean protesta azaldu dut atzerapenagatik eta kontuak alde batera utzi eta bere galderei erantzuteko agindu dit zakar. Oso jarrera despota eta erasokorra izan du nirekin. Nik euskaraz deklaratu nahi izatea ez zaiola gustatu iruditu zait. Euskaraz egiterik nahi ez bazuen, esan besterik ez zuen. Ez da bidezkoa euskaraz hitz egin nahi izateagatik horrelako tratu zakarra jasotzea”.

Esan nahi duzun hori epaileak itzultzaile baten bitartez jasotzen duenean aukera handia dago informazioa bidean galtzeko eta horrek herritarra urduritzeaz aparte bere defentsa eskubidea ere kaltetu egiten du.

Euskal Autonomia Erkidegoan euskarari ofizialtasun estatusa aitortu zitzaionetik 35 urte joan direnean, justizia administrazioan oraindik horrelako gertaerak jasan behar izatea ez da justiziazkoa.

Prozedura judiziala ez besteko aurrez aurreko ahozko jarduketan kasuan ere, herritarrek zailtasunak dituzte euskaraz aritzeko

“Gasteizko Administrazio auzien 1. Epaitegian izan naiz eta bertan euskaraz hitz egiten saiatu naiz, baina ez dut inorekin euskaraz hitz egiterik lortu. Euskara ofiziala izanik, zuzeneko arretan euskaraz hitz egiteko aukera berberak eduki beharko genituzte. Bestetik, epaitegiko eraikinean hainbat kartel gaztelania hutsean ikusi ditut eta diskriminazio horrek min egin dit.”

“Iruñeko epaitegian izan naiz eta ez harreran ez eta 4. Epaitegian inork ez nau euskaraz artatu”.

“Nafarroako Auzitegira hurbildu naiz kontsulta bat egitera eta harreran ez naute euskaraz artatu. Eguerdiko 14:40ean izan da”.

Baita telefono bidezko harremanetan ere.

“Barañaingo Bake Epaitegitik telefono deia jaso dut gaur (2017-03-06) eta gaztelania hutsean izan da.

“Irailaren 1ean, Nafarroako Auzitegiko 4. Epaitegira deitu behar izan nuen. Ez ninduten euskaraz artatu. 13:30ean izan zen”.

Ahozko hartu-emanetan gertatzen dena ez da salbuespena, zitazio-zedulak, agiriak, aktak, epaiak... erdaraz jasotzen ditu maiz eta idatzizkoan ere, zailtasunak aurkitzen ditu herritarrak euskaraz aritzeko.



Donostiako Protokoloa: 17. neurria

Administrazioek hizkuntza gutxituan (idatziz zein ahoz) ematen dizkiete beren zerbitzuak herritarrei.

“Burlatako Bake Epaitegitik bidalitako zitazio-zedula erdara hutsean dago”. **1**

“Gernika-Lumoko jabetza erregistroan izan nintzen lur sail bati buruzko informazioa eskatzen. Eskaera egiteko gaztelania hutsezko erdua eman zidaten. Euskarazko alerik bazuten galdetu nuen eta ezetz erantzun zidaten, programa Madrildik ematen dutela eta gaztelaniaz soilik dagoela. Harrera egin zidan langileak ere ez zekien euskaraz. Gauzak horrela, ez nuen euskaraz mintzatzeko aukerarik izan, ez eta eskaera euskaraz aurkeztekorik ere”.

“Nafarroako Justizia Auzitegiko Komunikazio eta Betearazpen Zerbitzu Erkideak utzitako jakinarazpena gaztelania hutsean idatzita zegoen”. **2**

1



2



Euskarari presentzia eskaintzen dioten kasuetan, zenbaitetan, ez da honen kalitatea zaintzen.

“Arrasateko Bake Epaitegitik igorri didaten oharraren euskarazko bertsioa ez da ona eta azpiko esaldi azpimarratua ez dute itzuli”. **3**

Legez adin txikikoekin lanean jardun behar dutenek delitu sexualik ez duen ziurtagiri bat behar dute. Justizia Ministerioak horretarako gaitu duen web orrian sartu gara, baina ziurtagiria lortu aurreko pantailan ulertezina eta erabat narratsa den euskaraz idatzita dago. Ziurtagiria ezin da euskaraz lortu”. **4**

Herritarrek, justizia administrazioari bideratutako kexetan, aski agerian uzten dute eskubideen urraketa, dela ahozko jardunean, dela idatzian.

Justizia Administrazioan lan egiten duten funtzionario eta langile gehienek ez dute gaitasun linguistikorik herritarrak euskaraz artatzeko edo beraien lana euskaraz burutzeko. Euskara ez da lan-hizkuntza Justizia Administrazioan, gaztelaniaz edo frantsesez egiten da lan guztia eta euskara erabilia den kasuetan gaztelaniaren itzulpena da.



Donostiako Protokoloa: 16. neurria


Araututa dago hizkuntza gutxitan ahoz zein idatziz egindako administrazio-prozedurek balio juridiko osoa dutela.

Euskal Autonomia Erkidegoko Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legean, 9. Artikuluan, “Justizia Administrazioarekiko harremanetan, herritar guztiek beren aukerako hizkuntza ofizialaz baliatu ahal izango dute, inolako itzulpenik ezin eska dakiekeela”, jasotzen bada ere, bide luzea dago oraindik herritar euskaldunen hizkuntza-eskubideak bermatzeko betebeharrean EAEn. Helburu horrekin jarri zen abian Auzia Euskaraz programa, baina, oraindik helburua lortzetik urrun dago.


Nafarroako epaitegietako jardura administratiboan ere, lan-hizkuntza nagusia gaztelania da. Nafarroako Foru Erkidegoan ez da inolako neurririk hartu, ez da formazio edo sentsibilizazio-kanpaina bereizirik burutu.

Justiziaren alorrean eskumen gehienak Espainiako Estatuarenak dira eta egiturazkoa da arazoa. Epaille, magistratu, fiskal eta idazkari judicialen jardura arautzen duen Botere Judicialaren Lege Organikoaren 321. artikulua prozeduretan gaztelania erabiliko dutela ezartzen baitu.

Zer esanik ez Ipar Euskal Herrian. Frantziako Konstituzioak frantsesa hartzen du hizkuntza ofizial bakartzat eta gainontzeko hizkuntza guztiak erabat baztertzen ditu.



“Esan nahi duzun hori epaileak itzultzaile baten bitartez jasotzen duenean, aukera handia dago informazioa bidean galtzeko.”



04 Hezkuntza



Hezkuntza

Hizkuntz Eskubideen deklarazio Unibertsalaren arabera “Gizaki orok eskubidea du bera bizi den lurraldeko berezko hizkuntzan jasotzeko hezkuntza”.

Eskubide honek ez du behar den garapenik izan oraindik Euskal Herrian.

Hasi haur-eskoletatik eta lan-ibilbidea amaitutzat dutenentzat unibertsitateak antolatzen dituen esperientzia geletaraino urratzen da gurean hezkuntza euskaraz jasotzeko eskubidea.



Donostiako Protokoloa: 57. neurria

Lehen urrats gisa, hizkuntza gutxituko hezkuntza eskuragarri dago eskatzen duten familia guztientzat.

2016 urtean, herri gogoak bultzatuta, Iruñeko Udalak euskarazko eskaintza bi haur eskola gehiagotara zabaltzea lortu zen, 2017an, berriz, ekimenari jarraipena emanez Nafarroako Gobernuaren bost haur eskoletatik bitan euskarazko eskaintza ezartzea lortu zen. Hala ere, euskaraz eskaintzen diren plazen kopurua motz gelditzen da oraindik eta zenbait haur euskarazko murgiltze ereduaren sartzeko aukerarik gabe gelditzen dira.

Derrigorrezko lehen hezkuntzari dagokionez, Nafarroan 43 herriri eremu ez-euskaldunetik eremu mistora pasatu izanak aurrerapausoa ekarri du D eredurako sarbidean, bai eta eremu ez-euskaldunetan euskarazko irakaskuntza baimendu eta eskaintza trinkotu izanak ere. Nolanahi ere, mugak hor daude oraindik, gutxieneko ratio bat lortu ezean ezin baita euskarazko lerrorik abiatu. Euskararen normalizazioaren aurkako indarrek horren jakitun, haur zein lehen hezkuntzako aurrematrikulazio kanpainetan oldarraldi mediatiko eta judizial bortitza abiatu dute euskarazko murgiltze ereduaren eta Nafarroako Gobernuak eta Iruñeko Udalak hartutako erabakien aurka, gurasoen artean ziurgabetasuna sortzeko helburuarekin. Hala ere, D ereduaren eremu ez euskalduneko ikastetxe gehiagotara zabaltzea da eta Iruñerrian gora egin du D ereduaren aldeko hautuak.

Euskarazko irakaskuntzaren aurkako sektoreak Nafarroan jomugan izan duen beste kolektibo bat irakasleena izan da. Irakasle elebidunek bi azterketa pasatu beharko dituzte euskarazko zein gaztelaniazko plazetan aritu nahi izanez gero, zerrenda bakarrak irakasle elebkarrei aukerak murrizten omen dizkielakoan.



“Ikas prozesu osoan urratzen dira hizkuntza-eskubideak.”



Ipar Euskal Herriari dagokionez, euskarazko murgiltze sisteman eskolatzen diren ikasleen kopuruak gora jarraitzen du, dela Seaskan, dela Ikas Bin biltzen diren irakaskuntza publikoko ikastetxeetan. Euskara lurraldeko eremu guztietan garatzeko dagoen nahikeriaren seinale da, zalantzarik gabe, baina agintarien aldetik neurriko erantzunik ez duena. Izan ere, Hendaiako Gare eta Lyssardy Ikastetxeetako gurasoek, protesta egin zuten Donibane Lohizunen Hezkuntza Nazionaleko Ikuskaritzaren atarian, 2017-2018 urteko sartzean Hezkuntza Ministerioak postu erdi bana kendu dielako, nahiz eta ikasle kopuruak gora egin. **1**

Ildo beretik, unibertsitate ikasketa-aurreko eskola ibilbide osoa euskaraz burutu duten Seaskako ikasle, guraso eta irakasleek Baxoa euskaraz pasa ahal izateko eskubidea aldarrikatu dute beste behin ere. Urteak dira Hezkuntza Ministerio frantsesak azterketa hori euskaraz egin ahal izateko urratsak eginen zituela hitzeman zuenetik. Alta, historia eta matematika probak soilik egin daitezke euskaraz. **2**



Donostiako Protokoloa: 73. neurria

Langide-heziketa eta -trebakuntza hizkuntza gutxituan eskuragarri dago eskatzen duten ikasleentzat.

Euskal Autonomia Erkidegoko 10/1982 Legeak, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrikoak honakoa dio 15. artikuluan: Ikasle guztiei aitortzen zaie irakaskuntza euskaraz jasotzeko eskubidea ikasmila guztietan.

35 urte baino gehiago joan dira EAEko herritarrei eskubide hori aitortu zitzaizkionetik, baina zorritzarekin, gaur egun, ez dago aukerarik oraindik unibertsitate-ikasketa guztiak euskaraz egiteko, ez eta euskaraz eskaintzen direnak euskaraz osorik egin ahal izateko ere.

Horren adibide, 2017ko maiatzaren 22an, EHuko medikuntzako ikasleen graduazio ekitaldian, ikasleek osasun zientziak euskaraz ikasteko eskubidearen alde eginiko aldarria. Medikuntzako ikasketak euskaraz egin ahal izateko dauden trabak aletu zituzten, ikasle moduan “nahi eta ezina” sarritan sentitu dutela salatu eta medikuntza euskaldun eta kalitatezko baten alde borrokan jarraituko dutela berretsi zuten. **3**

Nafarroako Unibertsitate Publikoari dagokionez 2017 urteak ez du aldaketarik ekarri, unibertsitateak udan aurkeztu zuen Euskararen Plan Gidariak euskarazko irakaskuntza gradu berrietara zabaltzeko aukera aintzat hartuko zuela espero bazen ere. Euskara eskaintza handitzeko kreditu kopuru bat aipatzen du, kopuru hori zergatik den arrazoitu gabe, zein ikasketetan izango den zehaztu gabe, hazkunde hori zein epetan egingo den eta horretarako zer giza-baliabide eta baliabide ekonomiko bideratuko den adierazi gabe. Agerikoa da planak inprobisazioari eta boluntarismoari erantzuten diola, ez duela xede estrategikorik.

Bien bitartean, Nafarroako Unibertsitate Publikoak bere ibilbidea abiatu zuenean bezalaxe jarraitzen du: graduiko ikasketa bakarra egin daiteke osorik euskaraz, magisteritzakoa, eta ikasketak euskaraz egingo lituzketen ikasleek gaztelaniaz ikasi behar dituzte kreditu gehienak, edo Euskal Herriko Unibertsitaterako bidea hartu.



Egoera honen aurrean, ikasle, sindikatu, NUPeko langile talde bat eta Iruñeko Euskalgintzak ekimena abiatu dute, Erizaintzako ikasketak euskaraz bermatzeko neurriak eskatzeko. Izan ere, ikasleen erdia baino gehiago euskalduna izanik, horietatik gehienak etorkizunean proportzio handi batean zerbitzu publikoetako langile izango direla kontuan harturik, eta Nafarroako osasun arretan paziente euskaldunen hizkuntza-eskubideak nola urratzen diren ikusirik, unibertsitateak profesional euskaldunak formatzeko erronkari aurre egiteko erantzukizuna du. **4**

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN ESPERIENTZIA GELAK

EHUK 55 urtetik gora dituzten eta lan bizitza amaitutzat daukaten pertsonentzako (erretiratu, aurre-erretiratu, etxekoandre, etab.) Esperientzia Gelak antolatzen ditu Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan. Helburua pertsona hauei aspaldiko ametsak bete edo euren trebakuntza intelektuala osatzeko aukera eskaintzea da. Gela hauean parte hartzeko ez da inolako baldintza akademikorik edo titulurik eskatzen, bizipen berriak edo unibertsitate bizipenak izan nahi dituzten pertsona guztientzako dira eta “Giza Zientzien” alorra da ikasketen ardatz nagusia.

EHUren Esperientzia Geletako ikasketa programan, ordea, ez da derrigorrezko ikasgai bat bera ere eskaintzen euskaraz eta hautazkoetan bakarren bat edo beste, besterik ez.

Herritarra kezu zen, bere eskola ibilbidea hasi zuenean bezala sentitzen delako amaieran ere, euskaraz ikasteko eskubidea urraturik.

EHUREN UDA IKASTAROAK

EHUK Uda ikastaroak antolatu ohi ditu 1993az geroztik, urtean zehar garatzen duen unibertsitate-jardueraren osagarri modura. Ikastaro horien helburua, ezagutza hedatu eta zabaltzea, irakasle eta ikasleen ezagutza profesionala eguneratzea, unibertsitateen arteko harremana lantzea, euskal kultura eta ikasketak nazioarte mailan hedatzea, eta aldatzen ari den gizarte baten inguruko eztabaida eta pentsamendu kritikorako eremu bat eskaintzea dira, gizarte ongizatea, Euskal Herrikoa bereziki, hobetzen laguntzeko.

Helburuak horiek izanik, harrigarria egiten da uda-ikastaroen eskaintzan euskaraz duen leku eskasa. 2017 urtean 150 ikastaro baino gehiago eskaini zituen eta horietatik 25 besterik ez euskaraz, gehienak euskal gaiekin zerikusi zuzena zutenak. Kexa egin zuen herritarrak zioen moduan, zer uste dute, bestelako gaiak ez zaizkigula euskaldunoi ere interesatzen?


Ikas prozesu osoan urratzen dira hizkuntza-eskubideak aipatutakoek agerian uzten duten moduan. Ildo honetan, hau dio Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren 26. Artikuluak: “Hizkuntza komunitate orok eskubidea du bere kide guztiei lurraldeko berezko hizkuntza menderatzeko bidea emango dien hezkuntza izateko, ohiko erabilerei dagozkien gaitasun guztiak barne”.

Amaitzeko, gai honen inguruan berariazko kezarik jaso ez badugu ere, Aztiker soziologia-kabineteak eta Euskal Herrian Euskarazek “Hezkuntza esparrua eta euskalduntzea EAEn (1983-2016) ikerketak plazaratu dituen ondorioak ekarri nahi ditugu hizpidera, izan ere, emaitzen arabera, EAEn ikasten duten bi ikasletik batek ez du lortzen euskara ondo jakitea (B2 gutxienez) beren derrigorrezko hezkuntza bukatutakoan. **5**

4



5



Emaitza hauek, ez bakarrik euskaraz ikasteko eskubidea, baizik eta euskara ezagutzeko eskubidea bera jartzen dute kolokan, hortik eratoritzen diren ondorio guztiekin.

Eskubide-urraketa ez ezik, lege-iruzurra ere bada. Izan ere, EAEn Euskararen erabilera normalizatzeko 10/1982 legeak argi dio 17. artikuluan:

“Jaurlaritzak, derrigorrezko ikastaldia bukatzerakoan ikasleek, aukera berdinetan, bi hizkuntza ofizialak benetan erabiltzeko adina menperatuko dituztela ziurtatzera bideratutako neurri guztiak hartuko ditu”.

EAEn dagokionez, Derrigorrezko Hezkuntzaren eremuan oraindik indarrean jarraitzen du ikasleak hizkuntzaren arabera banatzen eta sailkatzen dituen eredu-sistemak. Horrek gizartean talde berezituak sortzea eragiten du, eta, garrantzitsuenak, ikasle askori ez zaie bermatzen derrigorrezko hezkuntza amaitutakoan berezko hizkuntzaren ezagutza egokia izatea.

Gauzak horrela, 2017ko irailaren 25ean Hezkuntza Sailak abian jarri zuen EAEn Hezkuntzaren Aldeko Akordioa erdieste bultzatzeko prozesua eta bertan hamarnaka eragile, sindikatu eta abarrekoak bildu ziren. Aipatutako bileran, Hezkuntza Sailak bost lan eremu zehaztu zituen, hain zuzen ere, bizikidetzak, hizkuntzak, ebaluazioa, hezkuntza modernizatzea eta ikastetxeen autonomia. Horrela, irailetik aurrera bost lan-eremu horiei lotutako proposamenak egiteko bost lan-talde jarri ziren abian.

Prozesuaren lehen urratsak egiten ari zirela, Kontseiluak agerpen publikoa egin zuen 2017ko abenduaren 4an. Bertan, hezkuntzako eragile garrantzitsuak, besteak beste, Euskal Herriko Ikastolak, Sortzen, Kristau

Eskola, Hik Hasi, UEU eta HEIZE, bai eta euskal gehiengo sindikala ere, Kontseiluarekin batera atera ziren. Agerraldian zabaldu berri zen prozesuan hizkuntzaren eremuan jauzia eman beharra aldarrikatu zuten eta eskaera bateratua egin zuten, hain zuzen ere, Ikasle euskaldun eleaniztunak bermatuko dituen ikasteredu orokortua abian jartzeko. Horretarako baldintza errealak ikusten zituztela adierazi zuten, izan ere, irakasleria alde dago eta horren aldeko gehiengo soziala zein sindikala ere badago.

Kontseiluak berretsi zuen hainbat azterketek agerian utzi duten moduan, euskararen gaitasun egokia eskuratzeari dagokionez egungo ereduak goia jo dutela. Ildo horretan, ikasle guztiei eskubide berdinak bermatu behar zaizkiela, edota ezin direla lehen mailako eta bigarren mailako ikasleak bereizi gogorarazi zuen. Halaber, gogorarazi zen proposamen zehatzak badaudela horri buelta emateko: Ikasle Euskaldun Eleaniztunak eta Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa. Izan ere, ez dago gaur egun hezkuntza-komunitatearen eta gizartearen babes handiagoko proposamenik.

Arlo akademikotik kanpoko hezkuntzaren eremuko bestelako jardura esparruetan ere, badago zer hobetu hizkuntza-eskubideen bermearen langintzan.



Donostiako Protokoloa: 59. neurria

Eskolarekin zerikusia duten jardura guztiak –ikastetxe barruan nahiz kanpoan egiten direnak, eskolaz kanpoko jarduerak, etab.- eskuragarri daude hizkuntza gutxituan.


“Arlo akademikotik kanpo ere, badago zer hobetu hizkuntza-eskubideen bermearen langintzan.”

D ereduko ikastetxeetan euskararen jarduera akademikotik kanpo euskal giroa ziurtatzeko neurriek kale egiten dute oraindik: Horren adibide, Arabako Ribabellosa ikastetxe publikoko jantokian monitore guztiak erdaldunak izatea. Edota Lekarozko bigarren hezkuntzako ikastetxean, D eredukoa izanik, ikasleei hitzaldia gaztelania hutsean ematea.



Donostiako Protokoloa: 42. neurria

Administrazioak hizkuntza gutxitua erabiltzen du bere barne- eta kanpo-komunikazioetan.



“Hezkuntza administrazioarekiko komunikazioa euskaraz ziurtatzeko ere, nahikoa lan bada han eta hemen.”

Hezkuntza administrazioarekiko komunikazioa euskaraz ziurtatzeko ere nahiko lan bada han eta hemen:

“Hezkuntzak Gasteizen antolatutako hezitzaileen esleipenetan hasierako agurra euskaraz eta gaztelaniaz egin zuten; lehenik euskaraz, ondoren gaztelaniaz. Ekitaldia ordubete eta 15 minutu beranduago hasi zen, eta gaztelaniaz hasi zirenean hainbat kexa izan ziren arren, jarraitu egin zuten. Ondoren kontratu mota berriari buruzko azalpenak gaztelania hutsean emango zituela esan zuen horren ardura zuenak, bai eta hala egin ere.”

“Bost urte daramatzat Nafarroako Gobernuo Hezkuntza Departamentuarekin ditudan harremanak euskaraz bideratzea nahi dudala eskatzen. Aurten, berriz ere, gaztelania hutsean bidali dizkidate kontratua sinatzera pasatzeko mezuak eta, bertaratu eta sinatzeko luzatu didaten kontratua ere gaztelania hutsean zegoen.”

“Bizkaiko Hezkuntza Sailaren ordezkariarekin egiten ditudan hizketaldien %90a gaztelaniaz izaten da. Telefonoan “¿Si?” esanez hasten da harrera. Lotsagarria da! Nire hizkuntza-eskubideen urraketa eguneroko kontu bat da. “

Edo ikastetxeetara gaztelania hutsean zabaltzen dira informazioak:

“Sinestezina bada ere, gure ikastolan Nafarroako Gobernuak igorritako gaztelaniazko gero eta mezu gehiago jasotzen ditugu. “ 6

6 EDUCATIVOS*

D/Dña: _____
Como Director/a. del Centro: _____, y en representación del mismo.

SOLICITO que este Centro sea admitido en el Programa “Abordaje del consumo de drogas en los centros educativos”, orientado a desarrollar un Proyecto de prevención de Drogodependencias, en nuestro centro, durante los cursos escolares 2017-18, 2018-19.

A tal efecto, y de cara a la posible selección del centro, consignar los siguientes datos (indicar lo que proceda con una X):

CARACTERÍSTICAS DEL CENTRO:

- El centro ya cuenta con un plan de prevención de drogas señalado en la Programación General Anual (PGA) del centro. En caso afirmativo, ¿desde qué curso?.....
- Número de profesoras/as del centro:.....
- Número de alumnos/as del centro:.....
- Número de alumnos/as del centro de los que se tiene constancia o sospecha de que hay consumo.....
- nº de grupos del centro: 1º ESO:.....2º ESO:.....3º ESO:.....4º ESO:.....
- PCA:..... FP BÁSICA:..... Ciclos de grado medio: 1º CURSO.....2º CURSO.....
- Nº de grupos en el centro con alto porcentaje (más del 50%) de alumnado con: fracaso escolar, riesgo de exclusión, absentismo, posible consumo:.....
- Razones por las que el centro solicita la inclusión en el programa.....

COMPROMISOS QUE EL CENTRO ASUME:

- El equipo directivo se compromete a liderar y a formar parte del “Grupo Motor” (*) del programa.
- El claustro de profesores ha sido consultado y está de acuerdo en implicarse en el programa, cuya duración son dos cursos escolares, en un% (indicar porcentaje)
- El claustro de profesores ha sido informado y está de acuerdo en realizar la formación necesaria para el desarrollo del Programa (4 horas mínimo a 12 horas máximo)
- Se certificarán las formaciones de al menos 8 horas (incorporación al CAP)
- El personal no docente del centro, está dispuesto a colaborar, en un% (indicar porcentaje)
- El centro cuenta con equipos docentes (de grupos específicos en riesgo) que en su totalidad están dispuestos a asumir el programa de forma estable durante los dos años que abarca.
- El “Grupo Motor” contará con al menos tres miembros del centro educativo (una persona de orientación, una de dirección y una de convivencia), siendo una de estas personas la coordinadora (responsable de la aplicación del programa), cuyo nombre es:.....
- Su puesto de trabajo es:.....
- El Consejo Escolar valora positivamente la participación en el programa, en un% (indicar porcentaje)
- La APYMA ha sido comunicada y una persona está dispuesta a participar
- El centro incorporará dicho programa en la PGA del centro

El centro incorporará dicho programa al Plan Tutorial

- El centro enviará la memoria correspondiente a la implantación del programa en cada curso académico
- El centro una vez finalizados los dos cursos de implementación del Programa entregará el Plan de trabajo para el curso siguiente

En el supuesto de ser incluido en el programa, el Centro se compromete a llevar a cabo su proyecto concreto, en los plazos y con las actuaciones establecidas.

En Pamplona, a _____

Fdo: el Director/a Director/a del Centro

PRESENTACIÓN DE LAS SOLICITUDES

Enviar este formulario a la dirección C/ Leire nº 15, 31006 –Pamplona. Último día, 22 de Mayo de 2017 .

Sección Promoción de la Salud y Salud en todas las Políticas.

(*). El “Grupo Motor” del centro es conveniente que esté formado por, al menos, los siguientes miembros:

- Una persona del Equipo Directivo
- El orientador/a
- El/la responsable de convivencia del centro
- Tutor/a o tutores/as de los grupos específicos
- Una persona representante del personal no docente
- Una persona representante de las familias

“CNAItik gaztelera hutsean bidali dute Leitzara haurrei zuzendutako udako eskolaz kanpoko jardueren informazioa.” **7**

“Eusko Jaurlaritzak bultzatutako bullying-aren aurkako kanpainaren berri espainolez soilik jaso dugu elkartearen.” **8**



Donostiako Protokoloa: 159. neurria

Administrazio publikoen softwarea hizkuntza gutxituan lokalizatuta edo hizkuntza gutxitura itzulita dago, eta herritarren esku jartzen da.

“Derio BHI institutuan beka-orriak banatu dizkiete ikasleei. Beka-orriak beteta jaso ditugu, baina gaztelania hutsean daude goitik behera. Idazkaritzara jo dugu euskaraz bidal diezazkiguten. Aplikazioak ez duela orriak euskaraz betetzeko aukerarik eskaintzen erantzun digute.”



Donostiako Protokoloa: 41. neurria

Administrazioak hizkuntza gutxitua erabiltzen du bere irudi korporatiboan eta errotulazioan.

“Maurice Ravel Kolegio eta Lizeoan dagoen seinaletika frantses hutsean da. Ulertu behar al dugu euskaldunontzat ez dela debeku edo oharririk?” **9**

“Zizurko BHI ikastetxean hainbat afixa gaztelania hutsean daude.” **10**

7

8

9



10



05 Administrazio jarduera orokorrak



Administrazio jarduera orokorrak

Maila guztietako erakunde publikoek egiten dute huts herritar euskaldunei zerbitzua euskaraz emateko orduan. Ahozko arretan bezala, idatzizkoan ere, gabeziak daude administrazio jarduera esparru gehienetan.

Frantziar zein Espainiar Estatuetakoa administrazio periferikoek behin eta berrero jartzen dituzte herritarren esku erdara hutsean idatzizko dokumentu administratiboak. Jakinarazpen edo gutun pertsonalizatueta sistematikoa da euskara kontuan ez hartzea eta horiek erdara hutsean bidaltzea.



Donostiako Protokoloa: 17. neurria

Administrazioek hizkuntza gutxituan (idatziz zein ahoz) ematen dizkiete beren zerbitzuak herritarrei.

“Espainiako Gobernuaren Nafarroako Ordezkaritzan izan naiz atzerrira bidaiatzeko osasun tramiteak egiten. Jendeari zuzendutako ohar gehienak gaztelania hutsean daude eta betetzeko eman didaten imprimakia ere gaztelania hutsean idatzita zegoen”. **1**

“Postetxera joan naiz gutun bat hartzera. Gutuna Espainiako Gobernu Ordezkaritzak helarazi dit. Ez dago euskaraz”. **2**

“Pirinio Atlantikoko Kontseilu Orokorraren gutuna herritar guztiei frantses hutsean banatua”. **2**

Komunikazio pertsonalizatueta ez ezik, jendartean zabaltzen diren kartel, esku-orri, argibide eta bestelako informazio idatzietan ere, ez dituzte kontuan hartzen euskal hiztunak Frantziako zein Espainiako Estatuetakoa administrazioek.

“Barañain II Osasun etxean den Emakumeen Arretarako Zentroan Osasun Ministerioaren eta AECOSANen kartela dago ikusgai: ‘Alimentación segura durante el embarazo’. Zenbait aholku biltzen ditu kartelak eta tamalez, ez daude euskaraz”. **3**

“Pirinio Atlantikoko Kontseilu Orokorrak bidalitako Uztaritzeko saihebidearen inguruko proiektuaren informazio frantses hutsean da”. **4**



Estatuetako administrazioek ez. Autonomia Erkidegoetako administrazioen komunikazio/dibulgazio politikak ere ez ditu sarritan euskal hiztunen eskubidea bermatzen.

Donostiako Protokoloa: 42. neurria

Administrazioak hizkuntza gutxitua erabiltzen du bere barne- eta kanpo-komunikazioan.

“HAEetik bidalitako mezu elektronikoa gaztelaniaz jaso dut, hasierako eta bukaerako agurrak kenduta. Mezua nik jarritako erreklamazio bati emandako erantzuna jakinarazteko bidali didate. Kexatzeko deitu dudanean esan didate 700 erreklamaziotik gora jaso dutela eta guztioi erantzun behar digutela. Dena den, kontuan izango dutela esan didate. Hori gutxi balitz, mezuaren oinean euskararen txantxangorria agertzen da, ondorengo esaldiarekin: ‘Nahi baduzu, hemendik aurrera euskaraz egingo dugu gure artean’.” 5

“Gaztelania hutsean dagoen Nafarroako Gobernuko triptiko bat jaso dut nire etxean, Iruñean”.” 6

“Nafarroako Gobernuaren Herritarren Parte-Hartzerako Zuzendaritzatik posta elektronikoko bat jaso dugu maiatzaren 25erako Gobernuz Kanpoko Erakundeentzat antolatutako jardunaldietan parte hartzera gonbidatuz, eta mezua zabaltzeko eskatuz. Mezua eta harekin batera heldu den informazioa gaztelania hutsean daude. Ez dago hitz bat bera ere euskaraz, ez batean ezta bestean”.” 7

5



6



7



8




9

“Gaur Nafarroako Ogasunak Ezkirotz kalean duen bulegoan izan naiz aitortpena egiten. Gaztelaniaz luzatu dizkidate 600 ereduko agiririak. Euskarazko aleak eskatu eta ez dituztela esan didate”.” 8

“Bizkaia Interbiatik gutuna jaso dut gaztelania hutsean”.” 9

10



“Basauriko San Fausto jaiak direla eta Bizkaibusen zerbitzuetan eragindako aldaketak iragaritzeko oharra gaztelania hutsean jarri dute”.” 10

Herritarrak izapidea euskaraz abiatuta ere, erdara hutsean jaso du erantzuna zenbait kasutan.

“Nafarroako Gobernuak familia ugariarentzat eskaintzen dituen diru laguntzak eskuratzeko eskaera egin genuen. Eskaera euskaraz egin genuen, baina urtarrilaren lehenengo astean jaso dugun erantzuna gaztelania hutsean dago”. 10

“IVAPetik nik aurkeztutako erreklamazioari erantzuna emateko bidalitako posta elektronikoa, agurrak salbu, gaztelaniaz idatzita dago. Erreklamazioa euskaraz aurkeztu nuen; orduan, zergatik igorri zidaten posta elektronikoa erdaraz? Ezin dut ulertu”. 11

“Nafarroako Parlamentuaren euskarazko web orrian hainbat eduki gaztelaniaz direla eta kexa jarri eta bertatik jasotako erantzuna gaztelania hutsean igorri dute. Nola da posible?” 12

Izan da dantzan, batetik bestera, behar zen bulegora iritsi gabe ibili den instantzia herritarrak euskaraz aurkeztu zuelako.

“Euskaraz idatzitako instantzia bat sartu nuen Nafarroako Gobernuak Zergadunari Laguntza Emateko Atalaren Erregistroan, Elkarte, Fundazio eta Lanbide Elkargoen Bulegora zuzendua, elkarte baten estatutuak berritzeko. 2017ko azaroaren 9an aipaturiko bulegora deitu dut, bi hilabete pasatu eta ez nuelako haien berririk. Esan didate espedientea iraungitzeaz dagoela ez dudalako aurkeztu estatutuak eguneratzeko eskatu zidaten dokumentazioa. Nik esan diet baietz. Bi hilabetez dantzan ibili da instantzia hori, Elkarte, Fundazio eta Lanbide Elkargoen Bulegora iritsi gabe, euskaraz idatzia zegoelako”.

Tramiteak egiteko, zerbitzua eskaintzeko eta informazioa zabaltzeko gero eta beharrezkoago, ia ezinbesteko, bihurtu diren web orrietan eta sare sozialetan ere eduki eta aukera gutxiago ditu erabiltzaile euskaldunak. Eta administrazioak berak egiten du horren gaineko ohartarazpena.

“Nafarroako Gobernuaren web gunean aipatzen da badela gaztelania hutsean den informazio ‘asko’. Nola da posible? Suposatzen da informazio guztia ele bietan egon beharko lukeela”.

10



11



12



Lehendakaritza eta Lurralde Administrazioetarako Espainiako Ministerioak kexa honi emandako erantzunean adierazten duenez “Twitter kontuetan gaztelania erabiltzeak ez ditu kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak urratzen”. Erabiltzaile erdaldunenak ez, baina, bai euskaldunenak.

“Gizarte Segurantzako web orria, www.ameli.fr, frantsesez baizik ez da, baita posta kodea sartzean ere. Euskaldunon hizkuntza- eskubideak urratuak dira”. **13**

“Espainiako Gobernuaren Euskal Herrirako ordezkartzen (@DelGobPaisVasco, @DelegGobNavarra) eta azpiordezkartzen (@SubGobBizkaia, @SubGobGipuzkoa) Twitter kontuetatik gaztelania hutsezko txioak besterik ez dituzte zabaltzen”. **14**

“Nafarroako Gobernuak, gaztelaniaz soilik eman du ezagutzera Twitterren, gaur, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu den kazetari lanpostuan aritzeko zerrendak hautapropa bidez osatzeko deialdia”.

“Idatzi honen bidez nire kexa adierazi nahi nuke, IVAPen webgunean Osasun Publikoa Eskalarako argitaratuta dauden bibliografiaren estekek gaztelarazko bertsioetara soilik naramatelako”.

“Nafarroako Gobernuaren Berdintasunerako Institutuaren web guneak ez du batere informaziorik eskaintzen euskaraz. Horretaz gain, buletinean ere euskaraz ez du batere presentziarik”.

“Irekia, Eusko Jaurlaritzaren web orrian honako berria dator: ‘Mejoras en el servicio sanitario urgente en la comarca de Bidasoa’. Euskarazko web orrian dio: ‘Eduki hau itzultze prozesuan dago. Bitartean, gaztelarazko bertsioa eskuragarri duzu’. Zer da, euskaldunok bigarren mailakoak garela? Euskaraz ez dakitenek, hau da, EAEko hizkuntza bakarra dakitenek, eskubide gehiago dutela eta berriak lehenago jasotzeko eskubidea dutela?”

“Nafarroako Gobernuaren Urbasa-Andia parke naturalari buruzko web orria (www.parquedeurbasa.es) ez dago euskaraz”. **15**

“Irekia, Eusko Jaurlaritzaren parte-hartze web orriaren euskarazko bertsioan sartuta ere, argibideak emateko dagoen bideoa gaztelania hutsean dago”.

Informazioa euskaraz igortzeko betebeharra aintzat hartzen den zenbaitetan, ez da ganoraz jokatzeko eta erabilitako euskara ulergaitza delako erdarazko bertsioa jo behar izaten da; agerian utziz erdara dela ezinbestekoa, euskarari egin zaion lekua tramite hutsa dela eta ez euskaldunak behar den moduan informatzea eta arreta duina ematea. Horrelako gertaerek areagotu egiten dute gutxiespen sentipena herritarrengan.

“Cordovillako suhiltzaileen parkean dagoen 5067 GDN matrikuladun kamioiaren errotuluaren euskarazko testua guztiz aldrebesa da (Aurrera komando post). Gaztelaniazkoa irakurri ezean (Puesto de mando avanzado), ez dago ulertzerik. ‘Proteccion Civil’ ere gaizki itzulita dago. ‘Babes Zibileko’ jartzen du ‘Babes Zibila’ beharrean”. **16**

“IZENPE txartela berritu beharra izan dut oraintsu. Txartel berriarekin batera eskutitz bat bidali didate argibide batzuekin. Eskutitza bi hizkuntzatan, bi hizkuntza ofizialetan dago, badaezpada, batean ez dakienak bestean uler dezan, inoren inolako eskubiderik ez urratzeko. Bada, euskarazko testua ulertezina da”. **17**



Idatziko arretan bezala, bai aurrez aurreko ahozko arretan zein telefono bidezkoan zailtasunak aurkitzen dira solasaldia euskaraz burutzeko.

“Espainiako Gobernuaren ordezkari zara deitu du eta ezin izan dut euskaraz aritu, telefona hartu didaten bi pertsonak ez zekitelako euskaraz. Euskaldunik baden galdetuta, ezetz erantzun didate”.

“Baionako CPAMera telefonoz deitzean frantsesez soilik egin dautate”.

“Bizkaiko Foru Aldundira deitu dut Errenta Aitorpenaren kodea eskatzeko. Beti lez, zerbitzua euskaraz izatea eskatu dut, baina gaztelaniaz artatu naute.

“Donibane Lohizuneko CPAM Gizarte Segurantza bulegora joan behar izan naiz arazo batzuk konpontzeko. Langilea biziki zintzoa izanik ere, osoki frantsesez hartu nau eta frantsesez mintzatzera bortxatua sentitu naiz”.

“Bizkaiko Ogasun Sailak Durangon duen bulegoan izapide bat egitera joan naiz goizean. Euskaraz hasi naiz eta gogaiturik bezala, gaztelaraz galdetu dit ea zer nahi dudana. Ez du euskaraz egiteko inongo ahaleginik egin eta ez du erakutsi inongo begirunerik nik hautatako hizkuntzarekiko”.



Donostiako Protokoloa: 19. neurria


Zerbitzuak hizkuntza gutxituan emateko, hizkuntza-plangintza orokor bat aplikatzen dute Administrazioako alor guztiek.

Batzuetan, Euskara Planetan edo euskara bultzatzeko prozeduretan ezarritako irizpideak ere ez dira errespetatzen.

“IZENPERen informazio zenbakira deitu eta erantzungailuari euskaraz egin diot. Hala ere, telefona erantzun duenean, erdaraz erantzun dit. Nik euskaraz hitz egin diodanean, euskaraz jarraitu du.”



“Jakinarazpen edo gutun pertsonalizatuetan sistematikoa da euskara kontuan ez hartzea.”



Udalen jardunari dagokionez, ahozko zerbitzua ematerakoan herritarren hizkuntza hautua ez errespetatzea, eta idatzizko euskarrietan (oharrak, errotuluak, seinaleetako testuak, informazio-panelak, jakinarazpen ofizialak, ordainagiriak, fakturak, isunak, gailu automatikoetako jarraibideak, iragarkiak, aldizkariak, web orriak...) euskarak tokirik ez izatea izan dira eskubide-urraketaren arrazoi nagusiak.



Donostiako Protokoloa: 7. neurria

Jarduera oro hizkuntza gutxituan egiteko aukera bermatuta dago.

“Gasteizko Udalaren Herritarrentzako Zerbitzu eta Kirolen Arlorako deitu nuen, 945 1615 55 zenbakira zehazki, kirol ikastaroen inguruko kontsulta bat egiteko eta deia hartu zuen langilea gaztelania hutsean hasi zitzaidan hitz egiten. Ni euskaraz hasi nintzaion, baina esaldia bukatzen ere utzi gabe, “No, en euskara no” zakarra bota zidan. Nik “Un poco raro, ¿no?” erantzun eta gero, gaztelaniaz azaldu nion kontsulta eta deia beste udal langile bati bideratu behar ziola esan zidan. Bigarren langile horrek ere gaztelaniaz egin zuen lehen hitza. Ni berriro euskaraz azaltzen saiatu nintzen eta, berriro ere, gaztelaniaz egin behar izan nuen, baina bigarren langileak “Perdona, en castellano, por favor” eskatu zidan sikiera. Hirugarren langile batekin ere hitz egin behar izan nuen eta egoera berbera errepikatu zen. Onartezina da herritarrekiko harreman zuzena duten udal langileek euskaraz hitz egiteko edo, gutxien-gutxienez, euskara ulertzeko gai ez izatea”.

“Getxoko bizilaguna naiz. Udalean hainbat dokumentazio aurkeztu behar dut eskualdaketa baten berri emateko. Horren inguruko zenbait zalantza argitzeko deitu dut udaletxera eta gaztelaraz hitz egiteko eskatu didate”.

“Donapaleuko Turismo Bulegoan sartu eta euskaraz zekiten galdegin nuen, beren herriko informazioa behar bainuen. Espainolez, frantsesez eta ingelesez artatua izan nintekeela erran zidaten, baino ez bertako hizkuntzan”.

Herritarrek isuna ere jaso dezake bere hizkuntza hautuari eusten saiatuz gero.

“Irailaren 14an, arratsaldeko 17:00ak zirela, autoa karga-deskargan neukan, larrialdietako argiekin adierazita, Kortez kalea eta Miribilla artean. Nire parean kamioi bat zegoen, une bateko geldialdia egiten. Une hartan bi udaltzain agertu ziren eta parean zen kamioiaren gidariarekin berbalditxo bat egin ondoren, alde egiten utzi zioten. Niregana hurbildu zirenean momentu baterako besterik ez zela azaltzen saiatu nintzen, bizikletak tailerrera eramateko behar nuen denbora besterik ez, baina ezin banuen bertan gelditu mugituko nintzela. Hau guztia euskaraz. 907 plaka-zenbakiarekin identifikatu zen udaltzainak “gaztelaniaz mesedez” esan zuen, eta orduan, ahal izanez gero euskaraz nahiago nuela erantzun nion. Ez zitzaion nire erantzuna gustatu eta gaztelaniaz bera umiliatu egin nahi izan nuela, beste garai bateko erantzuna eman niola, gaztelaniaz egiteko eskubidea zuela, ni baino euskaldunagoa zela (¡Soy más vasco que tú!) eta gisakoak bota zizkidan eta isuna jarriko zidala adierazi. Baita egin ere! 013240 zenbakia duen isuna luzatu zidan. Zur eta lur gelditu nintzen. Berriro azaldu nahi izan nien ez nuela ezer haien kontra, euskara nire hizkuntza dela, Euskal Herrian ginela eta horregatik egin niela euskaraz, gainontzeko guztiei egiten dieran bezalaxe. Gaztelaniaz egiteko arazorik ez nuela ere adierazi nien, baina aukera izanez gero euskaraz nahiago nuela. Agenteak “erdaraz mesedez” erantzun zuenean, ez nekiela euskaraz ez zekienik, horren froga zela euskaraz ez zekiela ohartu bezain pronto gaztelaniara pasatu nintzela, eta halaxe ari ginela une horretan, gaztelaniaz. Kamioiak nik eginiko arau-hauste bera egin eta joaten utzi bazioten, isuna euskaraz egiteagatik jarri zidatela pentsarazten zidala, eta gaur egun hori Bilbon ezin zitekeela posible izan adierazi nien. Bitartean beste udaltzainak, ustez 0785 plaka-zenbakia daukanak, “isuna ondo irabazia duzu, nire lankidea nabarmen utzi nahi izateagatik” eta antzekoak esan zizkidan harro airez”.

Donostiako Protokoloa: 23. neurria

Bai egungo langileek bai langile berriek hizkuntza gaitasun egokia dutela bermatzen du Administrazioak.

Udalek langileak kontratatzeko dituzten hizkuntza irizpideei ere erreparatu diete herritarrek, izan ere, duten ezagutzaren arabera bermatuko diete langileek zerbitzua euskaraz erabiltzaileei. Herritarrek udal batzuetan zenbait lanposturi hizkuntza- eskakizunak kendu izana salatu dute, ordezkapenak egiterakoan lanpostuaren hizkuntza-eskakizunak aintzat hartu ez izana, eta baita lanpostuak hornitu edo lan-poltsak osatzeko deialdietan euskaraz jakitea nahitaezkoa ez izatea edota merezimendu modura ere aintzat ez hartzea. **22**

“Altsasuko Udalak hizkuntza-eskakizuna aldatu die plantillako zerbitzu aniztetako lanpostu guztiei, biri izan ezik. Aurrerantzean euskaraz jakitea ez da nahitaezko izango lanpostu horietan aritzeko, merezimendu kualifikatu gisa baloratuko da”. **171-2017**


“Altsasuko Musika eta Dantza Eskolan euskaraz ez dakiten ordezko irakasleak kontratatu dituzte, besteak beste, Musika Hizkuntzako eta Eskusoinu eta Trikitixako irakasleak”. **862-2017**

“Iruñeko Udalak langile euskaldunak alboratu ditu prestakuntzarako zerbitzu berezietarako zerrendak osatzerakoan, euskaraz jakitea ez baitu baloratu. Langile finkoak sustatu nahi izatea argudiatu du euskararen ezagutza ez baloratzeko”. **691-2017 - ez dagokio honi**


22



23



24



25





Donostiako Protokoloa: 178. neurria

Hizkuntza gutxituan egindako arte- eta kultur adierazpideak bermatuta daude azpiegitura publikoetan.

Udalek antolatu edo babestutako ikastaro, kultur programazio, kirol jarduera, erakusketa eta gisakoetan euskarazko eskaintza aintzat hartu ez izanagatik kexu dira herritarrak.

“Altzako Casares kultur etxearen urtarrileko programazioan helduentzako kultur ekintza guztiak españolez izango dira, saioak ez dira euskaraz izango. Ez da ziurtatu interpretazio zerbitzurik edo bestelako neurririk euskaraz jardun ahal izateko”.**49-2017**

“Orkoiengo udalaren martxoa eta apirileko jarduera guztiak gaztelania hutsean dira antzerki elebidun bat kenduta”.**227-2017**

“Donostiako Udalak aste honetan zabaldu du Koldo Mitxelena kultur gunean “EnvejezANDO” erakusketa. Erakusketa guztia gaztelania hutsean dago. Nola da posible Donostiako Udalak euskara ez bermatzea erakusketa honetan??? Abenduaren 9ra arte zabalik egongo dela jakinda erakusketa euskaratzeko eskatzen dut”.**992-2017**

“Arnagak jo ta ke frantsesaren alde! Maiatzaren 18 eta 21 bitartean egingo den Festival Musical et Littéraire delakoaren egitaraua frantses hutsean dago. Gainera euskaldun parte hartzaile bakarra dago : Itxaro Borda”.**560-2017 kulturaren zegoen**

26



27




28



29



Udalek euskarri idatzietan darabilten euskararen kalitatea behar bezala ez zaintzeak ere, herritarren kezka piztu du. Euskarari eta euskaldunoi zaigun begirune eskasaren erakusgarri da udal erakundeek euskararekiko erakusten duten utzikeria. 30



“Web orrietan eta sare sozialetan ere, eduki eta aukera gutxiago ditu erabiltzaile euskaldunak.”

30



Ipar Euskal Herriko udalei dagokienez, Herriko Etxe askotan euskarazko zerbitzua eskaintzen hasiak badira ere, herriko etxe andanek gabeziak dituzte oraindik. Batzuek borondatea adierazi diote Behatokiari aurrera segitzeko eta lanean ari direla azaldu dute Euskara Batzordeen bitartez plangintzak garatzen. Beste batzuek, berriz, ez dute beharrik ikusten honelako aldaketarik egiteko eta beraz euskarak ez du tokirik bizi publikoan.

“Miarritzeko Mediatekako gazteentzako programazioa frantses hutsean dago”.


“Baionako Glain parkingeko komun publikoetan eman oharrak eta argibideak frantsesez baizik ez dira. Beraz, euskaldunon hizkuntza-eskubideak urratuak dira”.

“Donibane Lohizuneko seinaletika frantses hutsean da. Ulertu behar dut euskaldunontzat ez dela debekurik edo kiroldegirik?” **31**

“Uztaritzeko Herriko Etxeak frantses hutsean jarri du seinalea”. **32**

“Uztaritzeko Herriko Etxeak agiria frantses hutsean eman du bertan euskararen erabilera sustatzeko hartutako erabakia aplikatu gabe”. **33**

Hizkuntza-eskubide urraketa hauek guztiak eta antzeko beste batzuk ekiditeko, garrantzia handikoa da profesional/langile prestatuak izatea, herritarrak aukeratutako hizkuntzan normaltasunez zerbitzua emateko eta lan egiteko gaitasuna izatea.




Halere, euskara berdintasunera ekarri eta herritarrak hizkuntzagatik diskriminatuak izan ez daitezen erabakiak hartzeko unean, Euskal Herriko administrazio zerbitzuen arduradunek ez dituzte norabide horretan doazen erabakiak hartu eta 2017an egindako hainbat lan-deialditan ez dute euskararen ezagutza aintzat hartu.

- Espainiako Gobernuak Euskal Autonomia Erkidegoan 340 plaza esleitu ditu administrazioan lan egiteko. Euskara jakitea ez da eskatuko.
- Nafarroako Gobernuak, legea bera urratuz, euskara baloratzen den 23 lan deialdi egin ditu. Beste deialdi batzuetan merezimendu gisa baloratuko da baina atzerriko hizkuntzak jakitea baino puntu gutxiago emango ditu.

Kontratazio publikoen politika honek oztopoak baino ez ditu sortzen herri-agintek herritarrak berdintasunez tratatzeko duten betebeharrarekin konplitzeko, eraginkortasunez erantzuteko. Administrazioarekin euskaraz jardun nahi duen herritarrak aukeratutako hizkuntzan zerbitzua emateko gaitasunik ez duten beharginak eta profesionalak kontratatzeak indefentsioan uzten ditu euskal hiztunak. Hauen hizkuntza-eskubideak kaltetzen ditu eta babes gabe uzten ditu.

06 Kultura Aisialdia Kirola



Kultura eta aisialdia

Euskarak alboan dituen hizkuntza indartsuek betetzen dute kultura eta aisialdi gertakarien espazioa. Oro har kultura eta aisialdi giroan euskarak ez dauka toki nagusirik.



Donostiako Protokoloa: 181. neurria

Kultur ekitaldietan (programetan, paisaian, edukian, etab.) hizkuntza-irizpideak finkatzen dira, hizkuntza gutxituaren ahozko nahiz idatzizko presentzia bermatzeko.

Euskarazko ekitaldiek, hala nola hitzaldiek, aurkezpenek... ez dute merezi duten arrakasta biltzen, esku hartzaileak kalitate handikoak izanik ere.

“Atzo, otsailak 11, Donostiako Tabakaleran egon nintzen Lizze Bordem zuzendariaren Born in flames (1983) filma ikusten. Aurkezpena gaztelania hutsean egin zuten eta azpitituluak ere hizkuntza berean joan ziren”.

“Agrupación Lírica Itsasok eman berri duen kontzertu eder batetik atera berri naiz. Arreta eman dit kartelean, eskuko egitarauan eta emanaldiaren aurkezpenean euskarak lekuri ez izateak. Web orria bera gaztelania hutsean dute. Ongi legoke elkarteari gure herri honetan bi hizkuntza ofizial ditugula gogoraraztea”.

“Larunbatean, maiatzak 6, Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsen ikuskizuna ikusi ondoan, Elizondoko karrketan pasiatzen genbiltzala, Foruen plazan Banda Recreoren kontzertuarekin egin genuen topo. Seme-alabekin euskarazko ikuskizunak gozatzetik atera berriak ginen, Elizondon segitzen genuen, baina, plazan mikrofonoko solas guztiak gaztelaniaz baino ez ziren aditzen. Bat-batean Cuencara egin ote genuen salto? Erabat baztertuak eta amorratuak sentitu ginen. Elizondoko banda izanik, gauzarik garrantzitsuena zuen faltan: eskuara”.

“Jaien hasierako pregoian (txupinazoan) alkateak gaztelania hutsean hitz egin du ‘Gora Orkoien’ kenduta”.

“Dock Of The Bay jaialdian, Coheni buruzko dokumentalaren aurkezpena eta zuzendariari egindako elkarrizketa gaztelera hutsean izan ziren, urtarrilaren 8an. Jaialdiak Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Donostiako Udalaren eta Donostiako Sustapenaren babesa du”.



Donostiako Protokoloa: 178. neurria

Hizkuntza gutxituan egindako arte- eta kultur adierazpideak bermatuta daude azpiegitura publikoetan.



“Oro har kultura eta aisialdi giroan euskarak ez dauka toki nagusirik.”



Kultur programazioak osatzeko orduan ez da maiz euskara eta erdaren arteko oreka zaintzen.

“Altzako Casares Kultur Etxearen urtarrileko programazioan helduentzako kultur ekintza guztiak espainolez izango dira, saiokak ez dira euskaraz izango. Ez da ziurtatu interpretazio zerbitzurik edo bestelako neurririk euskaraz jardun ahal izateko”.

“Berriz ere Arnagako egitaraua frantses hutsean. Arnagako ardurak Kanboko Herriko Etxeak du. Noizko elebitasuna gure Herriko Etxean? Parte hartzaile bakarria dago euskalduna, Itxaro Borda”. **1**

“Orkoiengo Udalaren martxoa eta apirileko jarduerak guztiak gaztelania hutsean dira antzerki elebidun bat kenduta. Udalaren euskara ordenantza urratzen du honek”. **2**

“Miarritzeko Mediatekako gazteentzako programazioa frantses hutsean da”.

“Amorebieta-Etxanoko Ametx erakundeak, herritarrentzako eskaintzen dituen ikastaroetan ez da bermatzen ikastaro bat bere ere euskaraz izango denik. Erakundearen bertan sartutako erreklamazioari erantzunez, bidalitako erantzunean erakundeak berak dio, lehentasuna taldeak sortzea dela eta ez dutela hizkuntza-irizpiderik jarraitzen”.

Ezta umeei zuzendutakoetan ere.

Donostiako Protokoloa: 52. neurria

Eskolaz kanpoko jarduerak guztiak eskuragarri daude hizkuntza gutxituan.

“Gasteizko Udalak antolatutako 2017ko Azoka Txikian parte hartu genuen goizez. Ipuin kontalari bat egon zen, baina honek kontatu zituen 4 ipuinak gaztelania hutsean izan ziren. Nik neure semei aldibereko itzulpena egin behar izan nien. Umeentzako ekintzak gaztelaniaz antolatzeak ez du euskararen normalizazio prozesuan laguntzen. Gainera, umei aisialdiak gaztelaniaz izan behar duela aditzera ematen die. Espero dut berriro holakorik ez gertatzea”.

“Eureka Zientzia Museoan 4 urtetik 6rako umeentzat eskainitako ‘Eskulanak’ tailerra, euskaraz eta gaztelaniaz izango zela zehazten zen, baina gaztelania hutsean eman dute. Gure haurrak euskaldun ele bekarrak dira”.

“Gasteizko jaietan Prado parkeko umeen jolas-parkeko megafonian gaztelaniaz bakarrik aritu dira”.

Sare sozialetan oihartzun handia izan zuen Usurbilgo Urbil merkataritzagunean gertatutakoak. Cinesa enpresak Richar zikoina filma euskarazko bertsioan emango zutela iragartzeko zabaldu zuen oharrean “barkatu eragozpenak” irakurri zitekeen espainolez. Ez dira aintzat hartzen gainontzeko pelikula guztiak gaztelania hutsean emateak euskal hiztunengan sortzen dituen eragozpenak. **3**



Aisiari edo kultur jardueri lotutako karteletan, paneletan, e-mailetan edota oharretan euskarari ez zaio apenas lekurik egiten.

“Nafarroako Gobernuak kudeatutako Arellano herriko Las Musas aztarnategian dagoen erakusketako testu guztiak gaztelania hutsean daude. Ez dago hitz bakar bat ere euskaraz. Esku-orriak euskaraz ematen dituzte, baina erakusketako panel guztiak gaztelaniaz soilik”. 4

“Bilbon, Txurdinagan dagoen Europa parkean, Bilboko Udalak zuhaitz mota desberdinak identifikatzeko plakak jarri ditu bakoitzaren izenarekin. Izenak latineraz eta gaztelaniaz daude, baina euskaraz ez!”

“BECen burutu behar den ‘Tendencias Creativas’ izeneko ekimenaren informazioa erabat gaztelaniaz igorri didate”. 5

“Larrungo trenaren prezioa zein zen ez nekielako email bat igorri nien euskaraz (web orrialdea euskaraz dute ere). Erantzuna, zuzenean, gaztelaniaz jaso nuen”. 6

“Donostiako Udalak aste honetan zabaldu du Koldo Mitxelena Kultur Gunean ‘EnvejezANDO’ erakusketa. Erakusketa guztia gaztelania hutsean dago. Nola da posible Donostiako Udalak euskara ez bermatzea erakusketa honetan? Abenduaren 9ra arte zabalik egongo dela jakinda erakusketa euskaratzeko eskatzen dut”.

“Igeldoko funikularraren sarrerako kartel asko gaztelaniaz daude soilik. Negargarria da”.

Karteletan, paneletan eta antzekoetan ez ezik, bestelako euskarrietan idatziz informazioa zabaltzeko orduan zabaltzen denean ere maiz uzten da albo batera euskara.


“www.chemin-bideak.com web orrian informazioa ezin da euskaraz irakurri, sar hitza ez ezik”.

“CINESAren web gunea ez dago euskaraz eta, beraz, EAeko bizilagunok ezin dugu gure hizkuntzan kontsultatu. Gainera, bertan ageri diren gure lurraldeko izen ofizialak ez dira errespetatzen. Noiz hartuko ditu kontuan CINESAk euskaldunon hizkuntza-eskubideak?” 7

“Donostia Kulturaren web gunearen euskarazko orrialdean hainbat eduki gaztelania hutsean daude”.

Bidaiak planifikatzeko aholkuak eta zerbitzuak kontratatzeko gero eta gehiago erabiltzen diren plataformetan euskaldunok ikusezin segitzen dugu.

“TripAdvisor ez da euskaldunentzat; web guneak ez ditu euskaraz idatzitako iruzkinak argitaratzen. 27 hizkuntza onartzen ditu atariak, baina euskara ez dago horien artean”.



Kexen zioen artean ikuskizunerako sarrera-txartela etab. euskaraz jaso ez izanagatik ere kexatu dira herritarrak.

“Guggenheimetik txartel berriaren gutuna jaso dut erdara hutsean”.

Ahozko erabilerari dagokionez, aurrez aurreko zerbitzuan edo telefono bidezkoan informazioa ezin izan duelako euskaraz jaso kexatu dira herritarrak.

“Iruñeko Liburutegi Nagusiko euskarazko koordinatzailea naiz. Atzo, azaroaren 28an, saioa genuen eta gure gelarako giltza eskatzera joan nintzen bi lekutara. Bietako batean ere ez zegoen euskaraz erantzuteko gai zen inor. Ez zait bidezkoa iruditzen Iruñeko Liburutegi Nagusian halakorik gertatzea”.

“Zirgariei buruzko bisita (euskaraz) erreserbatzeko deitu nuen 944 010 010 telefonora eta gaztelaniaz aritu zitzaizkidan. Gaur, bisita konfirmatzeko mezua bidali didate, gaztelania hutsean hau ere”.

“Donapaleuko Turismo bulegoan sartu eta euskaraz ea zekiten galdegin nuen, beren herriko informazioa behar bainuen. Espainolez, frantsesez eta ingelesez artatua izan nintekeela erran zidaten, baino ez bertako hizkuntzan”.

“Golem La Morean izan naiz eta zinemarako txartelak hartzerakoan ez naute euskaraz artatu. ‘No hablo euskara’ erran didate”.

“Bizkaiko Foru Aldundiko liburutegiko harrerako langileek ez dute euskaraz hitz egiten”.

Euskaraz ez artatzeaz gain, minduta sentiarazi duten errespetu gabeko jarrekin ere egin du topo herritarrak euren seme-alabekin aisialdi gunera hurbildu denean.

“Atzo Alegiko Txiki Jai Berri (txikiparkera) joan ginen aurrenekoz (eta azkenekoz oker ez bagaude). Bertako langilea gaztelaniaz zuzendu zitzaien gure semeei. ‘Para entrar son 3 fichas’ esanez. ‘Zer?’ galdetu zuen semeak. ‘Que para entrar son 3 fichas cada uno’. ‘Zer?’ Berriro semeak. Orduan nik: ‘Euskaraz hitz egiten ez badiezu ez dizute ulertuko’, eta orduan langileak ‘Nik nahi dudana hizkuntzan egitea daukat’. Ez gaude prest horrelako hizkuntza-politika onartzen duten lekuetara joateko.”

Kultur programazioen eskaintza ez da orekatua hizkuntzari dagokionean. Kultura eta aisialdia euskaraz bizitzeko zailtasunak daude eta horiek iragartzeko komunikazio hizkuntza ere ez da euskara izaten askotan. Kulturaz gozatzeko zein aisialdirako tartea hartzen duenean, euskal hiztunak mugaturik ikusten du bere burua eta oztupoak aurkitzen ditu erakunde pribatu nahiz publikoen partetik euskaraz normaltasunez bizi ahal izateko.

“Kulturaz gozatzeko, zein aisialdirako tartea hartzen duenean, euskal hiztunak mugaturik ikusten du bere burua.”



Kirola

Gaur egun jendartearen egunerokoan esparru inportantea betetzen duen kirol jardueretan ere, udal erakundeetan zein bestelakoetan, zailtasunak aurkitzen ditu herritarrak euskaraz jarduteko.

Haurren testuinguruan eskola eremutik kanpo euskara erabiltzeko aukerak garrantzia handia dute euskara behar bezala ikasi eta era normalizatuan ikusteko. Baina, hori ez da beti bermatzen, ordea. Hurrengo adibidean, esaterako, argi geratzen da Bilboko Udalak zernolako ardura erakusten duen euskarazko kirol jardueren eskaintza antolatzeko garaian.

“Azkeneko bost urtetan hirutan saiatu naiz nire semea Bilbao Kirolak-ek ematen dituen ikasgaietan euskarazko klaseetan apuntatzen eta ezinezkoa egin zait. Bere web orrian ikasgaiak euskaraz ematen direla agertzen bada ere, gero bertara joandakoan gaztelaniaz dira. Urriaren 2an nire semearekin arte martzialetako klasera joan nintzen eta maisuak berak esan zuen klaseak erdaraz emateko agindua zuela eta bere euskara maila kaxkarra zela klaseak emateko. San Inazion eta Miribillan berdin gertatu zait aurreko urteetan. Kiroldegian kexa jarri dut eta bertako langileek normaltasunez hartzen dute klaseak erdaraz izatea. Kontuan izanda Bilboko Udalaren zerbitzu publiko bat dela, instituzioak berak zaindu beharko luke euskaldunon eskubideak bermatzea”.

Bilboko Udalak ez dio erantzun ere egin Behatokiak bideratutako kexa honi. Nafarroako Gobernuako Kirol Institutuak igorritako erantzunean, berriz, neurriak iragarri ditu hurrengo egoera zuzentzeko.

“Abenduaren 9an Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuak sustatuta Nafarroako Kirol Jokoen pilota modalitateko finalak jokatu ziren. Sari-ematean eta txapeldunei banatu zaizkien dominetan euskarak ez zuen batere lekurik izan nahiz eta partehartzaile gehienak D ereduan eskolatutakoak izan”.

Erakunde publikoak ez diren, baina, hauen laguntza jasotzen duten entitateek ere, ahaztu egiten dute maiz daukaten erantzukizuna.

“Otsailaren 25ean, Bizkaiko Batelen Ligan alebin mailako nesken irteeran azalpenak gaztelania hutsean eman zituzten”.

“Ekainaren 9an Asociación Deportiva Irunesak gimnasia erritmikoko emanaldia antolatu zuen Irungo Amaia Kultur Zentroan. 17:00etako ekitaldi osoa gaztelaniaz egin zuten”.

Kirol zerbitzuen edota kirol jardueren inguruko izapideetan, ahoz zein idatziz, erdaraz aritzera behartuta sentitzen da herritarra, euskaraz artatuko duen langilerik ez dagoelako. Ahalegindu bai, baina, batetik bestera eta hortik hirugarrenera, solaskide izan zituen guztiekin gaztelaniaz aritu behar izan zuen herritar honen ibilerak, hizkuntza-eskubideak ez ezik, Gasteizko Udalaren ordenantza ere urratzen du.

“Gasteizko Udalaren Herritarrentzako Zerbitzuen eta Kirolen Arlor, zehazki, 945 161 555 zenbakira deitu nuen kirol ikastaroen inguruko kontsulta bat egiteko eta deia hartu zuen langilea gaztelania hutsean hasi zitzaidan hitz egiten. Ni euskaraz hasi nintzaion azaltzen kontsultatu nahi nuena, baina esaldia bukatzen ere utzi gabe, ‘No, en euskara no’ zakarra bota zidan. Nik ‘Un poco raro, ¿no?’ erantzun eta gero, gaztelaniaz azaldu nion kontsulta eta deia beste udal langile bati bideratu behar ziola esan zidan. Bigarren langile horrek ere gaztelaniaz egin zuen lehen hitza, ni berriro euskaraz azaltzen saiatu nintzen eta, berriro ere, gaztelaniaz hitz egin behar izan nuen, baina bigarren langileak ‘Perdona, en castellano, por favor’ eskatu zidan sikiera. Hirugarren langile batekin ere hitz egin behar izan nuen eta egoera berbera errepikatu zen. Onartezina da herritarrekiko harreman zuzena duten udal langileek euskaraz hitz egiteko edo, gutxien-gutxienez, euskara ulertzeko gai ez izatea eta, gainera, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legea nahiz Vitoria-Gasteizko Udalaren eta udalerrian hizkuntza ofizialak erabiltzaileari buruzko udal ordenantza ere urratzen da”.

Kirol instalazioetako hizkuntza paisaian edo kirol proba baten berri emateko zabaltzen diren karteletan, mezu elektronikoetan, oharretan, web orrietan, sare sozialetan eta abar azalpenak edo informazioa euskaraz jaso ezinik geratzen da euskal hiztuna askotan.

“Milaka euro Gasteizko Zabalganeko guztiontzako gizarte etxe berri-berria egiteko... eta kiroldegiko markagailua gaztelania hutsean. Lotsagarri”.

“Uler dezaket karteleria guztia euskaratzea nekagarria izan daitekeela, baino buruan ez zaidana sartzen kartel berriak egiten dituztenean, nola ez zaien automatikoki ateratzen euskaraz ere egon behar dutela.” **8**

“Donostiako Fortuna Kirol Elkarteak Kontxako hondartzako udal instalazioak erabiltzen dituen arren, ez ditu hizkuntza betebeharrak betetzen. Espainieraz eta ingelesez argitaratzen ditu informazio-orriak”. **9**

“Donosti CUPEko zuzendariak gimnastika erritmokoko nesken gurasoei helarazitako agiri bakarra gaztelania hutsean dago. Umeekin ahozko harremana ere gaztelera izan da soilik”. **10**



“Oso ‘Basque’ izango dira Basque Ultra Trail Series mendi lasterketa hauek, baina espainol hutsean bidali digu emailez informazioa mendi taldera beraien komunikazio gabinetek”. **11**

“Baskoniak hainbat sustapen kanpaina egiten du eta askotan, gaztelania hutsez. Azkena, adibidez, urriaren 5eko partidari banatu zuena”. **12**


“Twitter bidez TransEuskadi kirol probaren berri izan dut eta euren Twitter kontura jo dudanean, txio guztiak gaztelania hutsean dituztela ikusi dut. Webgunera jo eta gauza bera, gaztelania hutsean. Froga interesgarria iruditu arren, ez dut izenik eman bertan gutxietsia sentitu naizelako”. **13**

Esparru honetan euskara erabiltzeak zer garrantzia duen kontuan izanda, Euskal Herrian bideratzen diren hainbat eta hainbat kultura eta aisialdi ekimenetan euskara maiz baztertuta gelditzen da, frantsesaren eta gaztelaniaren mesedetan. Aisialdiaz gozatzeko modua nagusiki bi hizkuntza horietan da, euskara bigarren mailako hizkuntza bilakaturik.

Euskararen erabilera normaltasunerantz eramaten jarraitzeko ezinbestekoa da aisialdiaren eremuan euskararen presentzia bermatzea.



07 Lan mundua



Lan mundua

Lan munduaren esparruan, jarduera profesionalean, nagusiki erabiltzen diren hizkuntzak gaztelania eta frantsesa dira.



Donostiako Protokoloa: 112. neurria

Legez babestuta dago langileek lantokian hizkuntza gutxituan lan egiteko duten eskubidea.

Herri administrazioetako zein enpresetako jardueran erdara da ohiko lan hizkuntza.

“Laneko arazo informatiko batengatik EJIera (Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea) deitu dut, 945 017 300 telefonora, eta ‘me pudes hablar en español’ erantzun didate. Galdetu dut ea ez dagoen euskaraz dakien inor, eta itxoiteko esan ondoren, lankide batek artatu nau, honek ere gaztelaniaz. Nire kexua adierazi diet, baina gaztelaniaz egin behar izan dut nire duintasun eta giza eskubideen kontra”.

“Osakidetzako langilea naiz, Donostia Ospitalean. Bertako informatika zerbitzura deitzen dudanean, ezin izaten dut euskaraz egin. Informatika zerbitzuan euskarazko arreta bermatzea eskatzen dut”.

Pentsa litekeenaren kontrara, hezkuntzaren eremuan hezkuntza-komunitatea osatzen duten aktoreen arteko harremanetan hutsuneak daude oraindik ere hartu-emana euskaraz burutzeko orduan.

“Hezkuntza Sailaren Bizkaiko ordezkariarekin egiten ditudan hizketaldien %90 gaztelaniaz izaten da. Telefonoan “Si” esanez hasten da harrera. Lotsagarria da! Nire hizkuntza-eskubideen urraketa eguneroko kontu bat da”.

“Hezkuntzako irakasle ordezkoen esleipen batean egon naiz gaur Gasteizen. Goizeko 9:00etan izan da Jesus Guridi musika kontserbatorioan. Esleipena hasi denean, azalpen guztia gaztelaniaz egin digu Hezkuntzako langile batek. Amaitu duenean, esandakoa euskaraz ezin ote zuen esan galdegin dio partaide batek. Hizlariak ezetz erantzun dio, ulertzen zuela baina ezin zuela hitz egin. Nik esan diot orduan beste norbaitek egin beharko lukeela aurkezpena, euskaraz dakien batek. Zalaparta sortu da eta ondorioz Hezkuntzako beste langile batek dena euskaraz errepikatu digu (ez hanka ez buru!). Kontuan izan behar da partaide ginen guztiak euskal hiztunak ginela (Lehen Hezkuntzako irakasleak). Beraz, ez al da logikoa azalpena euskara hutsean ematea horretarako gaitua dagoen norbaitek? Izan ere, gaztelaniaz hitz egin duenak esandakoa esateko, ez da inongo ezagutza tekniko edo berezirik behar. Ez du ezer berezirik azaldu. Esleipen prozesua Nola izango zen aurkeztu du”.

“Zerrendan nago ordezkariak egiteko DBHn eta Batxilergoan. Bizkaiko delegaritzara ditu dut eta euskaraz galdetzean, “en erdera por favor” erantzun dit”.

Baita idatzizkoan ere.

“Sinestezina bada ere, gure ikastolan gero eta mezu gehiago jasotzen ditugu gaztelania hutsean Nafarroako Gobernutik”. **1**

“Hezkuntzan lan egiten dut. Formakuntzarako eskaera bat aurkeztu dut Berritzegunean. Formularioa euskaraz bete dut, baina, Bilboko Berritzegune nagusitik gaztelania hutsean bidali didate nire eskaerari erantzuteko e-maila. Ez da lehenbiziko aldia, behin eta berriz gertatzen zaigun gauza baizik”.



Donostiako Protokoloa: 159. neurria

Administrazio publikoen softwarea hizkuntza gutxituan lokalizatuta edo hizkuntza gutxitura itzulita dago, eta herritarren esku jartzen da.

Beharginen eskura jartzen diren lan tresna asko (aplikazioak, programa informatikoak, intraneta, web orriak...) erdara hutsean daude eta ez dute ahalbidetzen lana euskaraz egitea.

“Osakidetzaren Goierri-Urola Garaia ESIko langileentzako intraneteko hainbat eduki soilik gaztelaniazko bertsioan daude ikusgai. Zenbait kasutan euskarazko bertsioan ez dago informazio minimorik ere. Adibide bat atxikitzen dut”. **2**

“Osakidetzako langilea naiz. Nire sistema eragileko hizkuntza gisa Euskara aukeratuta ere, Norbide aplikazioa gaztelaniaz azaltzen zait. Nire lanerako erabili behar ditudan programak euskaraz ere izatea eskatzen dut”.

Euskaraz lan egiteko bitarteko egokirik ez da jartzen langileen edota entitateen eskura.

“Bilboko Merkataritza Ganberan gauza bat begiratu behar izan dugu eta dena gaztelaniaz! Ez dugu euskara hautatzeko botoirik. Nola da posible?”

Eta jartzen denean, gerta daiteke ematen den informazioa erabat fidagarria ez izatea.

“Aramaioko Udalak, UEMako kide denez, euskaraz lan egiten du. Hezkuntzako diru-laguntza zurrizko traba izan du, ordea, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa euskaraz eta gaztelaniaz ez delako informazio bera ageri. Gaztelaniaz ‘justificación’ jartzen duen atalean, euskaraz zuzenketa jartzen du, eta horrek nahastea eragin du langileen artean”.

1

2

Langileak hautatzeko edo deialdiak egiteko orduan ere erdara erabiltzeko joera orokortuarekin egiten dute topo izangai euskaldunek.

“Iruñeko Udalak Community manager lan-deialdian parte hartzeko EGA eskatzen duen arren, gaur lehen froga egiteko unean azalpen guztiak gaztelania hutsean eman dituzte eta oharren orrialdea zein azterketarako galderak ere halaxe eman dizkigute. Ele bietan eman dituguten gauza bakarra erantzunen plegua izan da”.

“Basque Center on Cognition, Brain and Language delakoak hainbat deialdi erdara hutsean egin ditu, are euskal hitzunei beren beregi zuzendutakoak”. **3**

“Nafarroako Gobernuak gaztelaniaz soilik eman du ezagutzera Twitterren gaur Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu den kazetari lanpostuan aritzeko zerrendak hautapropa bidez osatzeko deialdia”.

“Berriobeitiko Udalaren webgunean sartu naiz administrari laguntzaile lanpostuan aldi baterako kontratuarekin aritzeko zerrenda osatzeko baldintzak ikustera. Ezin izan dut informazioa euskaraz eskuratu “Barkatu, hau ez dago euskaraturik oraindik...” mezua agertu zait. Gaztelaniazko bertsiora jo behar izan dut informazioa lortuko banuen”. **4**

“Burlatako Udalak, Udaleko Kirol Patronatuko kudeatzaile, hezkuntza eta Gazteriako teknikari, Haur eskolako hezitzaile, ludotekari eta elektrikari ofizial lanpostuetarako aldi baterako ordezkapenentarako zerrendak osatzeko hautapropen deialdia egin du. Udalaren web orrian ezin dira baldintzak euskaraz eskuratu, gaztelania hutsean argitaratu dituzte guztiak. Eskabidea egiteko orrietan, bestalde, gaztelania da nagusi. Lotsagarria Kirol Patronatuko kudeatzaile, Hezkuntza eta Gazteriako teknikari eta ludotekari lanpostuek euskarazko C1 hizkuntza-eskakizuna izanik”.

Edo euskaraz zabaltzen den informazioaz fidatuz gero, lan aukerak arriskuan ikus ditzake euskal hiztunak.

“Gaur ikastetxe publikoetan ordezkapenak egiteko zenbait zerrenda ireki dituzte. Bada, hasieran horien informazioa bilatzen ez zen oraingo datarik zuen deialdirik agertzen. Jada etsita nengoela, orrialde berean baina erdaraz sartzea okurritu zait eta hara non ostiraleko data zeraman zerrendak irekitzeko ebazpena ikusi dudana. Lotsagarria iruditzen zait beti euskarazko bertsioetan akatsak egotea”.



“Enpleguarekin zerkusia duten izapideak egiteko orduan, euskara eta euskaldunok kontuan hartu gabe jarraitzen dute kasu askotan.”



Lan jardunarekin edota enpleguarekin zerikusia duten izapideak egiteko orduan euskara eta euskaldunak kontuan hartu gabe jarraitzen dute kasu askotan. Bai ahozko harremanetan...

“Gaur goizean Gizarte Segurantzaren Irungo bulegoan egon naiz. Hiru lagun desberdinek artatu naute eta hirurekin gaztelaniaz egin behar izan dut harremana”.

“Baionako CPAM Eritasun Asegurantzak Kaxara joan nintzen xehetasun batzuen argitzeko. Artatu ninduen langilea biziki xintxoia izanik ere, osoki frantsesez mintzatu behar izan nintzen harekin eta hark eman dokumentu idatzi oro ere osoki frantsesez zen. Baionako CPAM erakunde publikoa izanki, bertako hizkuntza den euskarak lekua behar luke ukan, bederen seinalelikan: afixetan ere ez zen euskara arrastorik”.

“Gizarte Segurantzaren egoitzara joan naiz Iruñean. Harreran zegoenak ez zekien euskaraz, eman didan papera gaztelaniaz zegoen eta ostean artatu nauen langilea ez zen euskalduna”.

“Gaur Lanbideren Gasteizko Araba kaleko bulegoan inork ez dit euskaraz hitz egin”.

“Bizkaiko Foru Aldundira deitu dut Errenta Aitorpenaren kodea eskatzeko. Beti lez, zerbitzua euskaraz izatea eskatu dut, baina gaztelaniaz artatu naute”.

“Bizkaiko Ogasun Sailak Durangon duen bulegoan izapide bat egitera joan naiz goizean. Euskaraz hasi naiz eta, gogaiturik bezala, gaztelaniaz galdetu dit ea zer nahi dudan. Ez du euskaraz egiteko inongo ahaleginik egin eta ez du erakutsi inongo begirunerik nik hautatutako hizkuntzarekiko”.

“Gaur goizean, azaroaren 21ean, Traparango Udaletik deitu didate lana eskaintzeko. Nahiz eta nik euskaraz hitz egin, telefonoz ari zenak erdaraz erantzun dit, nahiko modu zakarrean, gainera. Azkenerako, etsirik, erdarara pasa naiz. Kokoteraino nago halakoak jasan behar izateaz”.

“Txagorritxuko SEPE bulegoan euskaraz artatua izatea eskatu dut eta langile euskaldunik ez zegoela erantzun didate. Neure eta bertaratzen diren erabiltzaile euskaldun oroaren hizkuntza-eskubideak bermatu daitezten, behintzat PL2 duen pertsona bat jarri beharko lukete bulego honetan (eta beste guztietan ere)”.


... Eta baita idatzizkoetan ere.

“CPAMetik bidali gutun oro frantsesez baizik ez dira. Nik uste dut Baionako Gizarte Segurantzza bulegoak informazioa euskaraz edo gaskoieraz ere ukateko eskubidea bermatu beharko lukeela”. **5**

“Gizarte Segurantzaren webgunean osasun laguntzarako inprimakia gaztelania hutsean dago”.

“Nafarroako Gobernuaren web orrian ‘Programas Integrados de Formación y Empleo (PIFE) 2017-2018’ delakoaren dokumentazio guztia gaztelania garbian dago soilik. Antolatzailera FOREM da”. **6**

“2015. Urtean helbide fiskala aldatzeko agiria euskaraz emateko eskaera egin zen Iruñeko Udalean. Udalak baietz erantzun zuen abuztuan, baina egokitzapen informatiko batzuk egin behar zirela. 2017an, urte eta erdi beranduago, egoerak bere horretan dirau, Nafarroako Arartekoak 2017ko otsailaren 13an Udalari herritarrek Administrazioei euskaraz egiteko eta erantzuna euskaraz jasotzeko eskubidea dutela gogorarazi arren. Bien bitartean Nafarroako Administrazio Auzitegiak afera bukatutzat eman du Iruñeko Udalak eskaera onartu eta ‘horretan ari zela’ erantzun zuela kontuan hartuta. Norbaitek helbide fiskala aldatzeko agiria euskaraz nahi badu, bego lasai, Iruñeko Udala ‘horretan ari da’”. **7**



“Bost urte daramatzat Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuarekin ditudan harremanak euskaraz bideratzea nahi dudala eskatzen. Aurten, berriz, gaztelania hutsean bidali dizkidate kontratua sinatzera pasatzeko mezuak eta bertaraututa sinatzeko luzatu didaten kontratua ere, gaztelania hutsean zegoen”. **8**




Donostiako Protokoloa: 114. neurria

Enpresek bermatu egiten dute hizkuntza gutxitua lantokian erabiltzeko aukera, eta lan-eremuan hizkuntza gutxitua ez debekatzea bermatzen dute.

Enpresa munduan euskarari sarbidea errazteko asko dago egiteko oraindik. Esaterako, hornitzaileekin hartu-emana euskaraz garatzeko benetako oztipoak aurkitzen dira, nahiz eta propio eskatu.

“Penter enpresaren faktura eta publizitatea guztia gaztelaniaz jaso dugu. Posta hau heldu aurretik, bi aldiz eskatu genien ele bietan jaso nahi genuela (euskaraz zein gaztelaniaz)”. 9



Donostiako Protokoloa: 118. neurria

Sindikatuak hizkuntza gutxituaren aldeko neurriak eta babesa bultzatzen dute barne-mailan.

Langileen eskubideen defentsa eta hauen ongizatea xede duten sindikatuak ere ez dituzte maiz euskal hiztunen eskubideak kontuan hartzen eta erdara hutsean zabaltzen dituzte beharginei zuzendutako komunikazioak eta arreta.

“Nafarroako postalgoko LKN sindikatuak euskaraz ez dagoen honako idatzia banatu du postako langileen artean”. 10

“Trungo ELAren sindikatura deitu dut eta euskaraz hasi naiz hitz egiten. Harrituta utzi nau telefonoz bestaldean zegoenak erantzun didanak: “en erderaz mesedez”. Bada jai dugu bere burua abertzaletzat daukan sindikatu batetan halakoak entzuten baditugu”.



“Barañainen, Alaitz ikastetxea inguratzen duen paretetako batean, LABen kartela dago “18 despedidos, Eroski ¿contigo?” Euskarazko kartela faltan bota dut”. 11

“Gasteizko Txagorritxuko ospitalean CCOO eta UGT sindikatuek kartelak jarri dituzte gaztelania hutsean”. 12

Zerbitzua euskaraz normaltasunez eman eta euskara lan-hizkuntza izatera iristeko pertsonak, langileak, euskaldunak izatea garrantzitsua da oso. Bada, hainbat lan deialdi egin dira 2017an eta horietako askotan ez da euskararen ezagutza kontuan hartu.



Donostiako Protokoloa: 23. neurria

Bai egungo langileek bai langile berriek hizkuntza-gaitasun egokia dutela bermatzen du Administrazioak.

Esaterako, Correos y Telegrafos SA Estatu Sozietateak banaketan, bezeroentzako arreta zerbitzuan eta beste lanpostu ezberdinetan aritzeko lan-poltsak osatzeko deialdian eta oinarrietan ez zen kontuan hartu euskararen ezagutza, ezta Espainiako Estatuan mintzatzen diren gainontzeko hizkuntzena ere.

Nafarroako Gobernuak berak ere hainbat eta hainbat kontratazio zerrenda egin ditu euskara baloratu gabe. Gero, zerrenda horiek berak erabiltzen ditu Nafarroa osorako, “eremu euskalduna” deiturikoa barne, Legea bera urratzen du. Areago, lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdi batean euskara jakiteak baino puntu gehiago eman ditu atzerriko hizkuntza ezagutzeak.

Baina, kontratazio-politika egokiarekin batera, beharrezkoa da ere, efektibo horiek modu eraginkorrean antolatzea eta baliabide egokiak izatea. Lankide euskaldunen arteko erabilera informalaz harago berebiziko garrantzia du lan-harremanetan euskara lan-tresna bihurtzea eta egiturak eta erakundeak euskalduntzea. Euskara normalizatzeko, pertsonak euskalduntzea bezain garrantzitsua baita espazioak euskalduntzea.

Horrekin batera, inportantea da agintari politikoak eta arduradunak euskaldunak izatea eta euskara maila ona izatea, erdaratik euskarara itzultzea beharrezkoa izan gabe; izan ere, horrek eragin handia izan dezake administrazioan edota entitatearen barruan. Inpaktu handiko urratsa litzateke buruzagiek eta ardura postuetan dihardutenek euskara menperatzea eta gidatzen duten lan-taldearen eredu izatea.

Euskaraz normaltasunez bizi ahal izateko, ezinbestekoa da lan munduaren espazioak euskalduntzea.



“Euskara normalizatzeko, pertsonak euskalduntzea bezain garrantzitsua da espazioak euskalduntzea.”



08 Kontsumo zerbitzuak

Interes orokorreko zerbitzuak



Kontsumo zerbitzuak

Interes orokorreko zerbitzuak

Interes orokorreko zerbitzuak –ura, argindarra, telefonia, gasa, interneta, finantza zerbitzuak, garraioa, posta....- eskaintzen dituzten enpresek eta entitateek euren zerbitzuak eta jarduera antolatzeko orduan ez dituzte askotan kontuan hartzen hiztun euskaldunak, errealitateak egunero erakusten duen moduan.



Donostiako Protokoloa: 102. neurria

Behar bezala araututa dago hizkuntza gutxituko kontsumitzaileen eskubideen aitortza.

Idatzizko erabilerari dagokionean, finantza entitateetako bezero euskaldunek zailtasunak izan dituzte herritar guztien eskura jartzen diren publizitate euskarriak, web guneak eta hizkuntza-paisaia euskaraz aurkitzeko.

“La Caixak Auritzen duen bulegoko iragarkiak eta informazioa gaztelaniaz besterik ez daude”. 1

“Irailaren 16an, Sarasate Pasealekuan dagoen Laboral Kutxaren kanpoko iragarkietan, 3 karteletatik bakar bat euskaraz eta gaztelaniaz zegoen eta bertze biak gaztelaniaz bakarrik (eta ez ziren iragarki berdinak)”. 2

“Azaroaren 24an, Deustuko Laboral Kutxako mostradore baten gainean zeuden bi orri erdara hutsez zeuden”. 3

Batzuetan ironikoa ere izan daiteke entitate hauen hizkuntza-portaera. Ondorengo kexa helarazi zuen herritarraren hitzetan, kontraesan polita...

“Leizatik paseatzen, Banco Popularreko sukurtsaleko iragarkiak zer pentsatua eman zidan, ‘hablamos tu mismo idioma’ jarri ondoren dena erdara hutsean zutelako, UEMAko udalerrri batean. Kontraesan polita...” 4

1



2



3

LABORAL KUTXA

AHORRO REGULAR

Interés para el pequeño ahorro

0,10%

TAE el primer año

FLEXIBLE
Te otorga el día de cobro de la cuota o la cantidad, pudiéndote retirar tantas veces quieras.
(Los caudales no ingresados no dan lugar a comisiones ni penalizaciones)

LIBRE DISPONIBILIDAD (0,30 % en caso de disposición anticipada)

SIN COMISIONES

4





Donostiako Protokoloa: 111. neurria

Honako alor hauetan hizkuntza-plangintzak garatzen dira: aseguru-etxeak, energia-hornitzaileak, garraio-zerbitzuak, finantza-erakundeak, telefono-hornitzaileak, gizarte-prestazioak, osasungintza, posta-zerbitzua...

Informazio orokorra zabaltzeko orduan ez ezik, komunikazio eta euskarri pertsonalizatuetan ere entitate hauek ez dute kontuan hartzen komunikazio hizkuntza euskara izatea nahi duten herritarrak.

“BBVAren gutuna jaso dut gaztelania hutsean”. 5

“Usurbilgo herritar bati, Nafarroako Rural Kutxak posta elektronikoen bitartez bidalitako mezua gaztelania hutsean dago”.

Crédit Agricolek haren bezeroekiko begirune gehiago behar luke ukan. Nola da posible Senperen mutualitate asurantz bat egin eta kontratu guziaz frantsesez egoitea? Eta euskaldunon hizkuntza-eskubideak? Hare gehiago, ataletako batean espreski emana da harremanetarako hizkuntza frantsesa baizik ez dela izanen. Eta euskara? Ez al duzue erraiten ‘Euskal Herria laguntzen’ duziela? Lokalaren aldekoak izan nahi baduzue zinez, txeke-taloitegiez gian kontratuak eta bertze guziaz ere hizkuntza lokaletan beharko zenukete eman. Bezeroendako zerbitzua hobetzeko, ez zaiztea dirua ezartzeko prest?” 6

5



6



7



Esparru honetan ere Ipar Euskal Herriko herritarrak bizi duten bidegabekeriaren adibide dira ondorengo kasuak.

“Hendaian bizi gara eta Kutxabankek Irungo bulegotik posta arruntez txartel berri baten eskaintza egiteko gutuna bidali digute. Gaztelania hutsean dago informazioa”. 7

“Banque Populaire Aquitainien dudan konduaren hesteko dozierra osatzen ari naiz. Atzo (2017-09-14) ukan dut telefonoan banku kontseilari berria (ez nuen ezagutzen). Erran daut kondua hesteko galde gutuna eta txekea berriz igorri behar niela. Goiz huntan (2017-09-15) ene bakun kontseilariak deitu nau 10:55etan ene sakelekora gomendatzeko txekea frantsesez betetzea. Erantzun diot betidanik euskaraz betetzen ditudala txekeak eta ez dela inoiz arazorik izan. Berriz aholkatu dit hobe dela frantsesez betetzea ‘ez dela arazorik izanen segurtatzeko. Bestela baliteke berriz ere galdetzea beste txeke baten igortzea’. Erran diot ezetz eta deia hortan behera utzi dut”.

“Bankuko kontuko konbentzio berria (baldintza orokorrak) frantsesez baizik ez zaut helarazi”. 8

Telefonoz zein aurrez aurre ahozko arreta jasotzeko orduan ere oztupoak aurkitzen ditu euskal hiztunak euskaraz artatua izateko

“INGren Euskadiko bulego bakarrean ez daukate euskaraz atenditzeko gai den langilerik.”

“Kutxabankera telefonoz deitu dut eta artatu nauenak euskaraz ez zekien”.

“Antsoaingo Laboral Kutxara joan naiz. Harreran ez zegoen euskaldunik (bi langile zeuden). Euskaldun batekin egin nahi izanez gero, itxaron behar nion barruko bulegoan lan egiten duenari -une horretan beste pertsona batekin ari zen-. Harreran ez dago beraz euskaldunik. Erdaraz egin behar izan dut”.

Kasuren batean erraztasun handiagoa izan du herritarrak atzerriko hizkuntzan aritzeko bertakoan baino.

“Kutxabank aseguruetara deitu nuen etxeko istripu baten partea emateko eta telefono bidezko arreta zerbitzuak ez zidan euskaraz artatzeko aukerarik eman, espainolez eta ingelesez bakarrik hitz egin genezakeela erantzun zidaten”.

Eta besteren batean mespretxua eta iseka sentiarazi dioten jarrerekin egin du topo bezero euskaldunak euskaraz artatua izan nahi duela galdegin duenean.

“Crédit Agricolen artatu nauen emazteak ez zekien euskaraz. Nik ea euskaraz mintzaten zen galdetu dakotalarik, ezetz erran daut, garrantzirik ez duen zerbait balitz bezala. Hori aski ez eta ondotik pasatzen zen lankideari galdetu dako, ‘Est-ce que tu parles le basque, toi?’. (Euskaraz hitz egiten duzu, zuk?), argiki ni zokoratzeko helburuarekin (bertzenaz, zendako ez galdetu ‘Est-ce qu’on a quelqu’un qui parle le basque’ [‘Badago euskaraz mintzaten den norbait?'] edo holakorik). Bertze langileak irriño bat egin eta trufaki erran dago, ‘Ah, non!’ (A, ez!). Ez dakit ohartzen zaiztenez Euskal Herrian zaiztela, eta zien bezeroen zati handi bat eskualduna dela. Ez zaut biziki estrategia ona iduritzen eskualdunetaz trufatzea, zien bezeroak eskualdunak direlarik. Ziek ikus ea bezeroak irabazi edo galdu nahi dituzuenez”.

Aseguru-etxeek eta erakunde asegurataileek bezeroei igortzen dizkieten idatzizko komunikazio euskarri ezberdinetan zein ahozkoan ez dute behar adinako konpromisorik erakusten bezero euskaldunekiko.



Donostiako Protokoloa: 105. neurria

Informazioa hizkuntza gutxituan eskuragarri dago (fakturak, aurrekontuak, tarifak, produktuen katalogoak, ziurtagiriak, produktu eta zerbitzuak erabiltzeko gidak, etab.).



“Lagun Aro aseguru-etxeak gaztelania hutsean bidali dit gutuna”. **9**




“Lagun Aro 24 ordu zerbitzura deitu dut, eta ezin izan didate euskaraz erantzun, beraz, erdaraz egin behar izan dut komunikazioa”.

Telekomunikazio enpresak eta energia hornitzaileak dira kontsumoaren arloan euskaldunak aurkitzen dituen zailtasunen beste adibide argi bat. Hauekin idatzizko harremanetan zein ahozkoetan jarduteko orduan zailtasunak aurkitzen ditu euskal hiztunak ondorengo adibideetan jasotzen den moduan.

“Lekeitioko etxearen atarira sartu ginenean Danagas enpresaren erdara hutsean idatzitako oharra jarrita ikusi genuen. Lotsagarria iruditu zaigu horrelako informazioa erdaraz irakurri behar izatea”. **10**

“Gas Natural enpresak gutun bat bidali du nire etxera esanez teknikari bat etorriko dela instalazioa ondo dagoen egiaztatzerara. Gutuna eta hari atxikitutako informazioa gaztelaniaz bakarrik dago”. **11**

Gaur, maiatzak 9, argia moztu dute eta horren jakinarazpena gaztelania hutsean zegoen. Erabat asperturik nago, Iberdrolak beti berdina egiten du; ez ditu euskaldunon hizkuntza-eskubideak errespetatzen. Ez al dira ohartzen beren milaka bezero euskaldunak garela?” **12**



12

13

14

Euskarari lekua egiten diotenean, berriz, lanak izaten ditu zenbaitetan herritarrak bertan adierazitakoa ulertzeko, hau ere, arduragabekeriaren seinale.

“Internet bidez abenduaren 11n jaso nuen informazioa ulertezina da. Kontsumitzailearen bulegoan EDPri ipinitako kexa baten jakinarazpena, euskaraz, espainoletik automatikoki itzulia agertzen da eta EZ DUT ULERTZEN”. **13**

“Donibane Lohizuneko Gregorio Marañon 2 etorbidean den panela frantsesez baizik ez da. Non da euskara, bertako hizkuntza?” **14**

11

Mota honetako entitateekin ahozko hartu-emana euskaraz egin nahi izaten duenetan, nahi baino gehiagotan bukatu behar izaten du euskaldunak erdaraz hitz egiten. Hori erakusten dute herritarrek Behatokira helarazitako kasuek.

“EDPra deitu dut 944 035 700 zenbakira eta telefonoa hartu duen pertsonak gaztelaniaz egin dit harrera. Nik euskaraz jarraitu dut eta halako batean ‘disculpa no hablo vasco’ esan dit eta gaztelaniaz jarraitu behar izan dut”.

“Abenduaren 11n, 14:15 aldera, NATURGASek Bilboko Kale Nagusiko 56. Zenbakian duen bulegora deitu dut 5 urtetik behin derrigorrez egin behar den galdararen ikuskaritza egiteko hitzordua aldatzeko. Telefonoa hartu didan pertsonak gaztelaniaz egin dit. Nik euskaraz dakien norbait badagoen galdetu dut eta ezetz esan dit jarrera harro eta prepotentean, NATURGASeko bulego horretan ez dagoela euskaraz dakien inor. Amorraturik, haserre eta gutxietsita sentitu naiz. Bilbon gaude, noiz arte jasan behar ditugu horrelako egoerak euskaraz bizi nahi dugunok?”

Gero eta garrantzia handiagoa duten telekomunikazio enpresek ez dituzte kontuan hartzen erabiltzaile euskaldunak euren ahozko komunikazioetan eta erdaraz jardutera behartzen dituzte herritarrek hauek nahi baino gehiagotan.

“Duela egun batzuk Movistarren Iruñeko denda batean izan nintzen. Langileak nahi genuen izapidea fin burutu zuen arren, ez genuen zerbitzua euskaraz jaso. Ondoren, ‘Recordatorio: encuesta satisfacción punto de venta MOVISTAR’izeneko orria gaztelania hutsean bidali didate”.

Zerbitzua euskaraz ez emateak sortutako nahigabea gutxi ez balitz, euskaraz aritu nahi duten bezeroekiko jarrera erasokor, bidegabe eta onartezinak nozitu behar izan dituzte zenbaitetan.

Jazzteleko publizitate erasokorra egiten duten 983 441540 telefonotik hainbat dei jaso ditut gaur. Guztietan euskaraz erantzun dudanez edo euskaraz egitea eskatu dudanez, biraoka hasi zait Daniel izeneko saltzaile bat, eta, gainera, deika jarraitu du gaztelaniaz ez deitzeko eskatu diodan arren.

“Telefono deia jaso nuen Vodafonetik abenduaren 28an, eskaintza baten berri eman nahian. Euskaraz eman diezadan eskatu nion eta iraindu egin ninduen eskegi aurretik”.

“Ahozko hartu-emana euskaraz egin nahi izaten duenetan, nahi baino gehiagotan bukatu behar izaten du euskaldunak erdaraz hitz egiten.”

Euskal marka izatearen balio erantsia saltzen duten enpresek ere sarritan huts egiten diote harremana euskaraz izateko aukera egin duten bezeroei. Honek are eta amorru handiagoa sortzen du herritarrarengan.

Atzo, martxoak 15, 15:42an gertatu zen dena. Euskalteletik deitu zidaten gaztelaniaz hizketan, berriro ere. Mila bider esana diet informazioa euskaraz jaso nahi dudala eta mila bider kexatu naiz Euskaltelek informazioa euskaraz ematen ez didalako. Gainera, ezer esan gabe bat-batean euskaraz hitz egiten omen zuen pertsona jarri zen, eta esan nien ezetz, deitzeko mesedez telefonora euskaraz. Iseka egin zidaten 'la vida es así' eta horrelakoak esanez. Gainera, bigarren pertsona horrek ere ez zuen euskaraz taxuz egiten”.

“Pasa den egunean ez zidaten euskaraz egin Euskaltel enpresan. Hain zaila da Euskaltelen operadore guztiak elebidunak izatea?”

“Arratsaldeko 16:05ean, telefonoz deitu dut Euskalteleko 1717 zenbakira telefonia kontratuarekin lotutako gestio bat egiteko. Arreta euskaraz egiteko konfiguratuta dudan arren, gaztelaniaz erantzun dit operadoreak. Euskaraz artatuko nauen norbaitekin jartzeko eskatu dut. Operadoreak esan du une horretan operadore euskaldunak okupatuta zeudela, oharra hartu duela eta deituko didatela libratzen direnean. 17:45 dira eta oraindik ez dut deirik jaso”.

Idatzizkoan ez darabilte jokaera hobea.

“Basauriko Berriotxoa kalean Euskaltelek jarritako oharra gaztelania hutsean dago. Antza denez, euskaldunok ez gara existitzen”. 15

“Vodafonek Basauriko etxeetako atarietan jarritako publizitatea erdara hutsean dago. Lotsagarria iruditzen zait enpresa horrek euskaldunoi inolako begirunerik ez erakustea”. 16

“Vodafonekin kontratua sinatu genuenean harremanak euskaraz nahi genituela adierazi genuen. Hala ere, abuztu amaieran +Megas zerbitzuaren prezioak jakinaraziz jaso genuen gutuna gaztelania hutsean idatzita dago. Hitz bat ere ez dago euskaraz”. 17

15



16



17



Herritar guztiok une batean edo bestean erabili behar izaten ditugun garraio zerbitzuei dagokienez, errepidez edo airez bidaiatuta, autobus, tren edo hegazkin zerbitzuetan, euskaldunen hizkuntza-eskubideak egunero urratzen direla agerian uzten dute Behatokira helarazitako testigantzek.

Zerbitzu hauetan herritarrei ahozko harremana emateko dauden langileak hainbatetan ez dira euskaldunak izaten edo, kasualitatez, une horretan ez dira lanean ari. Enpresen web orriak gaztelaniaz edo frantsesez izaten dira, eta bidaiatze txartelak, tiketak, kartelak, oharrak **18** eta hizkuntza-paisaia osatzen duten bestelako mezuak ere, nekez aurkitzen ahal dira euskaraz. **19, 20, 21**

Aparkalekuak eta errepideak erabiltzean ere informazioa euskaraz jasotzeko zailtasunak izaten ditu herritarrak (ordainagiriak **22**), bide-sarien tiketak, etab.), eta euskaraz eskaintzen denean, zenbaitetan modu traketsen idatzita dago **23** edo nekez ulertzen dira, herritar honek esan zigun moduan:

“Termibuseko aparkalekuan erabiltzaileei zuzendutako oharrean euskarazko azalpenak ematen dira, baina ulertezinak dira”. **24**


Merkataritza kate eta saltoki handiek kontsumo harremanetan darabilten hizkuntza-jokabidean bigarren mailako bezeroak izaten segitzen dute neurri handi batean kontsumitzaile euskaldunak. **21**



Donostiako Protokoloa: 107. neurria

Errotulazioa eta merkataritza-informazioa hizkuntza gutxituan eskuragarri daude.

Horrela, jendaurrean jartzen diren kartel edo errotuluak, inprimakiak, fakturak, produktuen katalogoak eta erabiltzaileari zuzendutako komunikazio edo jakinarazpenak erdara hutsean jasotzeagatik kexatu dira herritarrak.



22

23

24

“Saltoki handiek kontsumo harremanetan darabilten hizkuntza-jokabidean, bigarren mailako bezeroak dira euskaldunak.”

“Barakaldoko Megaparkeko Aldi supermerkatuko kartel eta errotuluak ez daude euskaraz, gaztelania hutsean baizik”.

“Ortuellako Eroski Cityan euskararen presentzia hutsaren parekoa da. Horren adibide fakturak erdara hutsean ematen dituztela”. **25**

“Eroskin Travel Club katalogoa erdara hutsean dago. 76 orrialdeko katalogo osoan ez dago ezer euskaraz”. **26**

“Eroski Clubeko bazkidea naiz. Nirekiko harreman hizkuntza gisa euskara hautatu nuen abuztuan, bazkide egin nintzenean. Orain arteko SMS guztiak gaztelaniaz baino ez ditut jaso. Hondarra gaur, urriak 30”. **27**

“Leroy Merlin Clubek gaztelania hutsean bidali du katalogoa”.

“Beste behin, Forum Sportek sms-a erdara hutsean. Oso aspaldian ez dut ezer erosi dendotan; eta martxa honetan akaso sekula ere ez gehiago”. **28**

“Decathlon Donostia City denda berrian ez dago euskararen aztarnarik. Den-dena gaztelania hutsez, erakusleihotik hasi eta apalategi bakoitzeraino”. **29**

“Donostiako Garbera Merkataritza Gunean dagoen AKI brikolaje dendan oharrak gaztelaniaz soilik daude”. **30**

25



26



27



28



29



30



“FNACeko Donostiako dendan hainbat eta hainbat kartel erdaraz daude”. **31**

“Bilboko Alde Zaharra eta Atxuri auzoen artean dagoen Carrefour Marketen produktuen izenak gaztelania hutsean daude”. **32**

“Eroski Bilbondoko Gabonetako katalogoa heldu zaigu, umeez gutuna bidaltzeko ereduia barne. Hura, erdara hutsean...”. **33**

Eroskitik taloitegi modukoa jaso dut, marka zehatzetako produktuak erosiz Travel Club puntu hainbat jasotzeko; den-dena erdara hutsean dago. Gero eta okerrago gabiltza Eroskirekin bezeroon hizkuntza-eskubideei dagokienez?” **34**

“Gaur Iruñeko Hiper Eroskin nire datuekin bete eta Sanferminetarako sarien zozketan parte hartzeko txartela eman didate erosketan ordaintzean. Txartela gaztelaniaz besterik ez dago eta euskarazkorik ba ote zuen galdetu diot kutzako enplegatuari, baina, ezetz erantzun dit. Euskaldunok ezin izanen dugu, berriz ere, gure hizkuntzan parte hartu”. **35**

Senpereko Netto hipermerkatuak barnean soilik ez, parkinean ere seinaletika frantsesez baino ez du. Elebidunak diren panel bakarrak Herriko Etxeak emandakoak dira”. **36**

“Basauriko Bilbondo Merkataritza guneak antolatutako “La Ruleta de Bilbondo” delakoa (izena ere gaztelaniaz baino ez diote jarri) iragartzeko panfletoak gaztelania hutsean egin dituzte. Beste behin ere, euskaldunok ez omen dugu errespeturik merezi Bilbondoren aldetik”. **37**


31



32



33



34



35



36



37



“Bilbondo Merkataritza Gunean ‘Aste Txiki’ delako ekimena 38 iragartzeko jarri duten kartela erdara hutsean dago. Bereziki lotsagarria da umeei zuzendutako ekimena izanda, ume ia guztiak euskaldunak baitira”. 38

“Erregetarako errosko baterako zozketan parte hartzeko papertxoak gaztelania hutsean eman ziguten Eroskiren Bilbondo saltokian, baina papertxoan ikus daitekeenez Eroski Kooperatiba Elkartearen ekimen orokorra da. Lotsagarria iruditzen zait euskaldunak eta euskara bera bazterrean uztea; zoritxarrez, Eroskik egunero egiten du hori”. 39

“Berriozargo Decathlongo sarrera nagusian iragarki erraldoi bat dago. Iragarki hau bi aldiz errepikatuta dago. Bi iragarki berdinak izanda, nola bat euskaraz ez dagoen ulertezina egiten zait. Euskal lurraldeetan hizkuntza zaindu beharko luke, bai idatzizko kontuetan baita langileria kontratazioetan ere”. 40

Eskaintzen dituzten zerbitzuen edo produktuen publizitatea egiteko orduan kontsumitzaile euskaldunak existituko ez balira bezala jokatzeko dute merkataritza-gune edo kateek eta horrela behin eta berriz zokoraturik sentitzen da hiztun euskalduna.

“Barikuan ALDI supermerkatu bat inauguratuko dute Iurretan, Aldi Durango [sic]. Eskualdeko postontzietan zabaldu duten propaganda eta hedabideetan egiten ari diren publizitatea erdara hutsean daude”. 41

Atzo, apirilaren 28an, Ballontiko (Portugaleta) Eroski hipermerkatuan, “Te regalamos en IVA en alimentación y frescos” goiburua duen esku-orria eman zidan kutzazainak, tiketarekin batera. Gaur begiratu dut: aurkia eta ifrentzua berdin-berdinak dira; alde biak gaztelania hutsean daude! Gaztelaniaz birritan, euskaraz behin ere ez!”. 42




41

42

“Bilbondo Merkataritza Zentroak jarritako publizitatea erdara hutsean dago”. **43**



“Iruñeko Santo Domingo kalean dagoen Caprabok bere publizitatea gaztelania hutsean dauka”. **44**



“Brico Dépôt-ek publizitatea banatu du Hondarribiako etxeetan maizteko eskaintzen berri emanez. Liburuxkaren azalean eta kontrazalean lekutxo bat egin diote euskarari, baina barneko orrialdeetan, ezer ez dago euskaraz. Informazio guztia gaztelaniaz dago”. **45**

44

“Donostiako Okendo kalean Burger King saltoki bat ireki eta etxerako zerbitzua jarri dute. Horren berri emateko propaganda banatu didate etxeko buzoian eta gaztelania hutsean dago”. **46**



46

“Veritas etxe ekologiko katalanak supermerkatuak ditu Gasteizen eta Bilbon; bertarako gaztelania hutsean egiten ditu propaganda orriak”. **47**

45



47

“Duela egun batzuk Lasarteko TIEN21k publizitate orri batzuk banatu ditu Usurbilgo etxeetan. Esku-orriak gaztelania hutsean daude”. **48**



48

“Iruñeko Sanduzelai auzoan bizi naiz eta Eroski Iruña hipermerkatuaren publizitatea utzi digute atarian. Osoki gaztelaniaz dago, ez zegoen ondoan euskarazkorik”. 49

Aurrez aurreko zein telefono bidezko ahozko arretan ez dira finago ibiltzen, nahiz eta batzuetan euskarazko atentzioa iragarri.

“Oiartzungo Alcampora deituz gero erantzungailuak euskaraz eta gaztelaniaz esaten du mezu grabatuak, baina harrera egiten duen pertsonak ez daki euskaraz eta gaztelaniaz eman behar zaizkio azalpenak”.

“Abandoko geltokian dagoen Carrefour Express saltokian ez naute inoiz euskaraz artatzen”.

“Lehenago jende euskalduna topatzen nuen Iruñeko Forum Sporten. Gustura egiten nituen nire erosketak hor. Gaur egun ez dut ezta langile batekin ere euskaraz egiterik. Amorrua sentitu nuen ordaintzeko garaian nire aurrean zegoen gizon adindunak ‘arratsaldeon’ esan eta neri bezala euskarazko zerbitzua ematen ez zutela ikustean”.

“Oiartzungo Leroy Merlinen, erosketa osoan zerbitzua gaztelania

hutsez eman didate, bai denda barruan eta baita ordainketa kutxan ere, nahiz eta ni euskaraz zuzendu natzaien”.

“Ordizian Eroskik urdaitegian pertsona bat dauka zenbakiak ere euskaraz ez dakizkiena”.

“Gaur arratsaldean (17:30ak aldera) joan naiz Markinako Eroskira eta fijatu naiz produktuen izenak eta euren jatorria gaztelaniaz bakarrik daudela. Nire harridura azaldu nahi izan diot dendako arduradunari eta han zegoen langile bati galdetu diot ‘zu, parkatu nor da dendako arduraduna?’ eta erantzun dit ‘no sé qué es eso’. Egoera ikusi eta alde egin dut leku horretatik”.

“Urbil merkataritza-guneko Eroskin, ez harrerakoek, ez arropa sailekoek ere euskaraz ez zuten ulertzen. Ohikoa Eroski supermerkatuetan”.



Ostalaritzaren sektorean jarduten duten establezimenduek jendeari begira jartzen dituzten errotulu eta kartelak zein ahoz eskaintzen duten zerbitzuak albo batera uzten ditu bezero euskaldunak.

“Uztailaren 22an Elizondoko Beti Jai tabernan egon nintzen eta zerbitzariak ez zuen tutik ulertzen euskaraz. Bezero euskaldunei harrera egiteko beste jakin beharko lukete Elizondo bezalako herri batean”.

Ramuntcho kafetegiko menu karta frantsesez da soilik. Atxeman dut urtean zehar dituen bezeroen zati bat euskaldunak izanda, hobeki litaikela euskaraz ere eskaintzea. Ber maneran, 18:00ak inguru zen langilea ez zen euskalduna. Nahiz eta xintxoki hartu ginguen, nahiago ginukeen bai xintxoki eta bai euskaraz hartu izan bagintu”.

“Loiuko aireportuko tabernan euskaraz eskatu dugu eta erdaraz eskatzeko esan digute”.

“Iruñeko Albret Hotelean gaua erreserbatu genuen eta bertara heltzean harrerako langileari euskaraz eginda, horrek erdaraz egiteko eskatu zigun. Bestalde, hoteleko ohar, kartel, etab. guztiak hainbat hizkuntzatan zeuden, baina ez euskaraz. Lotsagarria iruditu zitzaidan hainbat hizkuntzetan jarrita ez izatea inolako begirunerik euskaldunekiko”.

“Afaltzera joan lagunekin eta harrituta eta haserre nola karta gaztelania hutsean zegoen. Lotsagarria Lazkao bezalako herri euskaldun batean”. 50

Ostalaritza termometroa bada, kezkarria egiten da gune turistikoetan ostalaritzako hainbat establezimenduk darabilten hizkuntza-portaera. Gero eta gehiagotan egiten zaie lekua atzerriko hizkuntzei eta arrotza, benetan, bertako hizkuntzan aritu nahi duen herritarra da.

“Amara Plaza hotelean areto bat alokatzeko webgunera sartu naiz informazio bila. Hizkuntza desberdinetan ikusteko aukera ematen du, baina euskarak arrastorik ez”.

“Bilboko Amarena jatetxean web orria erdaraz dute; gaztelaniaz eta ingelesez. Euskaraz ezer ez. Euskaldunak baztertuak, ingelesen alde, gure herrian bertan”. 51

“Bilboko Bidebarrietan dagoen Foster ‘s Hollywoodek kartela erdaretan baino ez du. Nik dakidala, ingelesa ez da EAEko hizkuntza ofiziala. Euskara, ordea, bai. Errespetu apur bat, faborez”. 52

“Koadrilaren bazkaria egin dugu Iruñeko La Runa sagardotegian. Eseri baino lehen zerbitzariari komentatu diot ea posible ote den zerbitzari euskalduna izatea, koadrila osoa euskalduna dugulako. Jator aski erantzun dit ez dagoela inor, egon beharko lukeela, baina momentuz ez dagoela.... Bukaeran, ordaintzeko momentuan, bertze zerbitzari batek aipatu digu euskarazko zerbitzua eskatu dugula eta, nahi bagenuen ingelesez arreta egiten ahal zigutela. Ez du modu txarrean esan, baina mindu nau. Aipatu diot euskara bertakoa dela eta ingelesa ez, konparaketa eskasa egin duela”.

50



51



52



Elikaduraren industriarian ekoitzi eta herritarren eskura jartzen diren produktu ia guztien etiketek eta jarraibideek ez dituzte kontsumitzaile euskaldunak kontuan hartzen eta, horien gaineko informazioa nahi izanez gero, gaztelaniara edo frantsesera jo beste erremediorik ez du euskal hiztunak. Euskalduna da, kasu honetan, arrotza.

Kaleetako turista-masifikazioak eta ostatu turistikoen zabalkunde bizkorrari establezimenduek erantzuteko hartu dituzten hizkuntzen kudeaketarako neurriek, alegia, bertakoa kontuan ez hartzea eta askotan baztertzea eragin du gero eta establezimendu gehiagotan euskara egoera kezagarrian kokatzea.

Euskaldunak nonbaitera bidaiatzeko asmoa hartzen duenean, etxetik irten aurretik aurkituko ditu euskaraz mugitzeko zailtasunak bidaia-txartela erosteko edo informazioa eskuratzeko garraio enpresaren web orria erabiltzen badu.

“AENAREN web orria (www.aena.es) sartu naiz Madrilgo aireportutik irteten zen hegaldi bat kontsultatu nahi nuelako, baina web orria ez dago euskaraz”. **53**

“FEVEREN web orria gaztelaniaz baino ez dago”. **54**

“ATCRB enpresaren web gunera joan naiz ordutegiak begiratzeko. Den-dena frantsesez idatzia da. Jakinez bezero zati handi bat euskalduna dela, eta euskara ofiziala den gune batean (Irunen) ere egiten duela lan, uste dut webgunea eta bertako informazioak (ordutegi, ibilbide) euskaraz ere eman beharko lituzkeela”. **55**

“Jakin izan dut Basqtour enpresak ‘Te llevamos’ markaren bidez Jaurlaritzak deitutako lan-poltsen azterketara joateko autobusak antolatu dituela. Sartu naiz enpresaren web orrira eta erdara hutsean dago. Euskal Herrian kokatutako enpresa izanik eta bere zerbitzuak hemen bizi garenontzat eskaintzen dituen izanik, lotsagarria iruditzen zait euren informazio guztia erdaraz baino ez izatea”. **56**



Aireportura, autobus edota tren geltokira hurbiltzen bada, ez du egoera askoz hobea aurkituko eta, ahozko zerbitzua jasotzeko orduan, zein bertan aurkituko dituen ohar, kartel eta abarretan, zaila egingo zaio informazioa euskaraz eskuratzea. **57**

“Iruñetik Donostiara doan Alsa konpainiaren autobusa (herriz herri dihoana) hartu dut 11:30ean eta, bai ahozko (leihatilako langilearekin zein idatzizko hartu-emana ez dut euskaraz egiterik izan. Zergatik ez dituzte nire hizkuntza-eskubideak errespetatzen? **58**

“Trailaren 28an, 13:20ean Tolosako tren geltokian, Brinkolara zihoan trena berandu zetorrela megafoniatik esaterakoan ez zuten euskara erabili”. **59**

“Askotan hartzen dut trena Altsasuko tren geltokian. Megafoniako mezuak ez dituzte euskaraz ematen”. **60**

“Bilbon, Abandoko geltokian, Renferen tren bat berandu ibili da eta Adif-en atzerapen agiria ez dago euskaraz”. **57**

“Baionako Pereira plaza 1 helbidean den SNCF geltokiko seinaletika ez da euskaraz. Geltoki hau Euskal Herrian izanki, euskaldunon hizkuntza-eskubideen aurkakoa da”. **58**

“Bilboko Abando tren geltokiko orgatxoak uzteko lekuan, argazkian ikus daitekeen bezala, gaztelaniaz baino ez daude oharrak”. **59**

“Euskara ez da nehun ageri Donibane Lohizuneko SNCF geltokiko afixetan” **60**



Urratsak urrats, posta eta telegrafo zerbitzuetan ere bide luzea gelditzen da oraindik herritarren hizkuntza-eskubideak ongi zaintzeko. Izan ere, euskara ofiziala den lurraldeetan, oraindik hutsune handiak somatu dituzte herritarrek ahozko zein idatzizko zerbitzua euskaraz jasotzeko.

“Gasteizko Postas kaleko posta-bulegoan ezin izan dut paketea euskaraz jaso”.

“Segurako Correosen bulegoan euskaraz ez dakien langile batek ordezkatu du aurrez zegoen behargin euskalduna. Segurako bizilagunen %80,3 euskalduna da eta herriko harreman-hizkuntza euskara da. Horregatik, Correos bezalako interes orokorreko zerbitzu batean euskarak bermatuta egon behar duela uste dugu, ia herritar guztiek joan behar izaten baitute noizbait hara”.

“Alameda Urquijo kaleko Correosen bulegora joan naiz gutun ziurtatua bidaltzera eta langilearekin gaztelaniaz egin behar izan dut. Emandako paperaren %80 gaztelaniaz dago”.

Posta zerbitzuetan erabiltzen diren inprimakietan urratsak eman badira ere, badago zer hobetu hizkuntza-paisaian eta produktuak eta zerbitzuak iragartzeko egiten diren kanpainenetan. 61

“Ordiziako Filipinetako kalean dagoen Correoseko bulegoan dituzten kartel eta iragarki gehienak ez daude euskaraz, gaztelania hutsez baizik”.

“Lantokiko postontzian Correosen publizitate orria aurkitu dugu, bere produktuak (zigiluak, gutunazalak, kutzak...) eta zerbitzuak (oporretako postontzia) etxera eramateko eskaintzaren berri emanez. Orria espainiera hutsean dago. Ez ditu kontsumitzaile euskaldunak aintzat hartzen”. 61

“Correosek City Paq zerbitzua iragartzeko Bilboko Metroan egindako publizitate-kanpaina gaztelania hutsez dago. Horrekin, beste behin ere, euskaldunok ez gaituzte aintzat hartu bezero gisa”.

Ipar Euskal Herrian La Poste erakundeak euskaldunon hizkuntza-eskubideen aurkako jarrerari eutsi dio eta helbidea bertako hizkuntzan idatzita egoteagatik itzuli egin du gutuna “ez dela zuzena” adieraziz.

“Euskal Elkargora bidali genuen gutunean euskaraz idatzi genuen helbidea. La Postek itzuli egin digu gutuna helbidea ‘ez dela zuzena’ adieraziz”. 62

HOJA DE PEDIDO A DOMICILIO

Controla la oferta antes la posibilidad de adaptar toda su oferta para productos postales a domicilio. No tiene que rellenar el cuadro de pedidos y facilidades. Tener en cuenta los precios de envío.

Oficina: Teléfono: E-mail:

SELLOS A DOMICILIO

Tenemos a su disposición sellos de cualquier tarifa, tanto nacionales como internacionales. **Pídeselos y se lo llevamos a domicilio.**

EMBALAJES

Disponemos de todo tipo de embalajes: Cajas y sobres de diferentes tamaños. Embalaje de Seguridad. Cajas para envío de Bicicletas, Caja para envío de Bicycletas, etc...

SOBRES PREFRANQUEADOS

Envíelos Prefranqueados o personalízalos con el logotipo de su empresa. Estos sobres no caducan y son válidos para España. (consultar descuentos por volumen).

SERVICIOS

¡SUON DE VACACIONES, cuando comiencen este servicio y le guiaremos sus cartas hasta su vuelta y si tiene Certificados le enviaremos un SMS. También puede contratar el **REENVÍO POSTAL** de su correspondencia a otra dirección por traslado.

Producto	Unidades	Precio	Total
IMPORTE TOTAL			

62




Egunero bizi ditu euskaldunak horrelako edo antzeko egoerak. Gutxiagotua izatearen sentipena, ezintasuna, arraro sentitzea... euskal hiztunak bere egunerokoan sentitzen dituen sentsazioak dira. Atzerritarra bere herrian.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan, Euskal Autonomia Erkidegoan Kontsumitzaileen Legeak eta Dekretuak herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko saltoki eta kate handiei hainbat betebeharrak ezartzen dizkien arren, tamalez, oso ohikoa izaten da horiek kontuan hartu gabe jardutea, hizkuntza-eskubideak ez ezik, araudia bera ere urratzen dute.

Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzko 123/2008 Dekretua ez betetzeak inongo ondorioz ez duenez, esan dezakegu hizkuntza-eskubideak bermatzeko eraginkorra ez den tresna bat dela.

Ipar Euskal Herrian eta Nafarroako Foru Erkidegoan zerbitzu hauek euskaraz jasotzeko inongo berme juridikorik gabe segitzen dute erabiltzaile euskaldunek. Frantsesaren eta gaztelaniaren derrigorrezko erabilera da Estatuek ezartzen dituzten araudien edukia.

“Ezintasuna, arraro sentitzea... euskal hiztunak bere egunerokoan sentitzen dituen sentsazioak dira. Atzerritarra bere herrian.”



09 Ondorioak

Ondorioak

Hizkuntz Eskubideen Behatokiak hizkuntza-eskubideen egoerari buruz 2017 urtean egin duen diagnosiak berriz ere agerian jarri ditu Euskal Herriko administrazioen eta ehun sozioekonomikoaren antolamenduan euskarari eta herritarrei aitortutako hizkuntza-eskubideak sistemaren muinean kokatu ez izanak dakartzan ajeak: edukirik gabeko ofizialtasuna eta hizkuntza-eskubideen urraketa kronifikatua.

“Herri-gogo sendo batek agerian jarri ditu gabeziak eta horri esker etorri dira euskarari lekua egiteko erabakiak.”

Administrazioa (tokikoa, forala, autonomikoa, zer esanik ez Estatuetakoa) eta ehun sozioekonomikoa erdaraz egituratu eta garatu dira, gaztelania eta frantsesari lehentasun osoa emanez eta euskara bigarren mailara, hizkuntza subsidiario izaerara alboratuz.

Euskararen erabilera normalizatzeko oinarri juridikoak ezartzen hasi zirenetik euri asko egin du, baina neurri eraginkorrak bideratzeko lidergo sendo baten faltan, euskararen ofizialtasunaren ondorioak eta herritarrei aitortutako hizkuntza-eskubideen bermerako neurriak ez dira behar bezala barneratu ez erakunde publikoen, ez ehun sozioekonomikoaren jardunean.

Herri-gogo sendo batek agerian jarri ditu gabeziak, eta horri esker etorri dira, gehienez, beranduegi, euskarari lekua egiteko erabakiak. Alabaina, adostasun zabalean, borondatean eta progresibotasunean oinarritutako neurriek ez dute inertzia zahar eta erresistentzietan gaina hartzeko besteko indarrak erakutsi eta motz geratu dira ezarritako helburuen betetze-mailan (jaio ere, indar betearazlerik gabe jaio baitziren).

Eta horrela laburbildu daiteke egoera Euskal Herrian:

- Hezkuntza-sistemak ez du guztiz bermatzen derrigorrezko eskolaldia amaitutakoan euskararen gutxieneko ezagutza lortzea, ez eta irakaskuntza oro euskaraz izateko eskubidea ere.
- Erakunde publikoek ez dute administrazioarekin harremanak, hitzez nahi idatziz, euskaraz izateko eskubidea bermatzen.
- Justizia administrazioan ez da justiziarik euskaldunentzat.
- Paziente euskaldun batek ederki azaldu bezala, “gerriko minez joaten dira ospitalera eta bihotzeko minez irteten”, euskarak osasun arretan duen presentzia eskasaren eraginez.
- Lanbide jarduerak euskaraz burutzeko eskubidea bahituta dago.
- Euskal kontsumitzaile eta erabiltzailei arreta edota produktuen gaineko informazioa ukatu egiten zaigu euskaraz.

Euskaldunoi ez zaigu euskara ezagutu eta erabiltzeko eskubidea bermatzen, ez arlo publikoan, ez eremu sozioekonomikoan.

Hori horrela, euskaraz bizi nahi duen herritarrak zail du, gaur-gaurkoz, Euskal Herrian euskaraz bizitzea; egunero eta nonahi urratzen zaio lurraldeko berezko hizkuntzan aritzeko eskubidea, dela ikuspegi aktibotik, zein pasibotik, dela hitzez nahiz idatziz. Labur esanda euskaraz bizitzeko eskubidea ukatuta bizi gara.


Euskal Herrian euskaraz bizi nahi izatea, ordea, ez da apeta bat. Hizkuntza-eskubideak giza-eskubideak dira, ezbairik gabe, duintasunez bizitzeko beharrezkoak eta pertsona orori bermatu beharrekoak.

Botere publikoen zeregina da injustizia egoerak zuzentzea eta herritarrei legeaz aitortutako eskubideak bermatzeko neurriak bideratzea. Hori horrela, hizkuntza-politika euskal hiztunen parametroetatik egiten hasteko ordua iritsi da, hizkuntza-eskubideak sistemaren ardatzean jarriko dituen euskarazko gizarte zirkuituak sortu eta garatzekoa, euskara askatasun eta berme osoz erabiltzea ahalbidetuko duten guneez babestutakoak sortzeko, euskara zerbitzu-hizkuntza ez ezik lan hizkuntza izango duten guneez.

Horretarako, erabaki estrategikoak hartu behar dira: Euskararen ezagutza unibertsalizatu, lana eskuratzeko euskararen ezagutza beharrezko bihurtu, lan esparruetan euskaraz lan egitea ahalbidetuko duten euskarazko zirkuituak sortu, zirkuitu horietarako protokoloak ezarri eta pedagogia gizarte bizitzako arlo guztietara hedatu eta hizkuntza-irizpideak ezarri.

Tamaina horretako erronkak ongi planifikatutako estrategia eskatzen du, helburu eta epe zehatzak, eta baliabide ekonomiko nahikoa izango dituen, ebaluazio-irizpide argiak eta neurri zuzentzaileak aurreikusiko dituen, eta prozesua gidatu eta bultzada emateko lidergo sendoa izango duena.

Ardura-postuak dituzten pertsonen euskarazko zirkuituek beren funtzioa beteko dutela bermatu behar dute, eurak horretarako oztopo bihurtu gabe. Izan ere, sarri askotan arduradunen hizkuntza-gaitasun eza izan ohi da lana edo zerbitzua euskaraz bermatzeko oztopo nagusia, bere mende dagoen kate osoa gaztelaniaz lan egitera behartzen duena. Agintari politikoek



“Hizkuntza-politika euskal hiztunen parametroetatik egiten hasteko ordua iritsi da.”

euskara maila ona izan behar dute gainera, hizkuntzari prestigioa eman ez ezik, egitasmoak euskaraz pentsatu, sortu eta aurrera eraman ahal izateko ere.

Aurrera begirako kontratazio-irizpideak ere berrikusi behar dira. Administrazioak ezin du zerbitzua bi hizkuntza ofizialetan emateko gai ez den inor gehiago kontratatu eta dagoeneko administrazio-langile direnak euskaldundu ahala, euskaraz lan egiten jarri behar ditu, pertsonak euskalduntzen eginiko inbertsioa ezerezean gera ez dadin.

Berezkoa duen esparruaz gainera, administrazioak arlo sozioekonomikoan duen irismena baliatu behar du, zerbitzu profesioaletan, industria jardueran, kontsumo harremanetan, kirolean, kulturean, hedabideetan eta arlo sozialeko jardueretan euskararen erabilera arautzeko. Eta prest egon behar du herritarren hizkuntza-eskubideak zaindu eta bermatzen ez dituzten entitateei jarraipena eta ikuskaritza egiteko.

Euskal hiztunok bizi dugun ukazioa amaituko bada, bizikidetzaren posible izango bada, legez aitortutako hizkuntza-eskubideen bermeak izan behar du aurrerantzean Euskal Herriko administrazio, eremu sozioekonomiko eta gizarte bizitzaren ardatz eta helburu.

Lege aitortza aipatuta, aurten, Nafarroaren egoerak eskatzen du aipamen berezia egitea. Indarrean den Euskararen Foru Legeak aitortza eskasa eta are babes eskasagoa eman die euskarari eta Nafarroako euskal hiztunei.

Lege honen itzalpean euskal hiztunak etengabeko bazterketa bizi izan du, administrazio-zerbitzuak hartzean, administrazio lanpostuetako sarbidean, osasun zerbitzuetan, hezkuntzan, hedabideetan, ingurune digitalean, kulturean, aisialdiko ekintzetan, alor sozioekonomikoan ...

Baina, ez hori bakarrik. Ezartzen duen zonifikazioarekin, herritarrak, bizi diren eremuaren arabera zatitzen ditu eta euskaldunen hizkuntza-eskubideen aitortza eta bermea horren itzalpean esleitzen du. Maila desberdinetako nafarrak sortuz eta herritarren arteko desberdinkeria eraginez.

Zenbait kexa hartzailek, tartean Espainiako Estatuko eta Nafarroako erakunde publikoak, Behatokiari helarazitako erantzunetan adierazi dutenez, 18/1986 Foru Legeak ezarritako zonifikazioa oztopo da herritarren hizkuntza-eskubideen bermerako eta hura gainditzeko ekimen legegileak iradokitzen dituzte irtenbide posibletzat.

2017ko urrian, leihobat zabaldu zen euskarentzat lege berria egiteko Nafarroako Parlamentuan. Bide horrek herritarren arteko desberdinkeriarekin amaitzeko eta hizkuntza-eskubideen aitortza, bermea eta babesa ziurtatuko dituen pentsamenduarekin lanean ari da euskalgintza herritarrekin batera. Hala bedi.